

## Eskaladako bide euskalduna Pakistanen

Lau euskaldunek bide berri bat zabaldu dute Karakorumen mendilerroko mendi batean; 'Izar gorri, mamuon betiko argi' izena ipini diote. Tartean elorriak bi daude / 28



Galder Gaztelu-Urrutiaren 'The Platform 2' pelikula urriaren 4an estreinatuko dute / 25

ANBOTOren Udako Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea zabalik irailaren 15era arte / 12

Iurretako Bidebarrieta kalean aparkaleku berria zabaldu dute egoiliarrentzat / 10



ELORRIKO FERIXA NAUSIKOAK 2024 / 13



IZURTZAKO JAIK 2024 / 22



## DATORREN URTERA ARTE

Saharako 30 ume errefuxiatuk Durangaldean pasatu dute uda Lajwad, Río de Oro eta Hamadako Izarrak elkarten babespean / 2-3

**DURANGO**

**72,36€**  
EMATEKIZENA

**HIZKUNTZA  
ESKOLA  
OFIZIALA**

**Ziurtagiri Ofiziala**  
Deutsch · English · Euskara · Français

**MATRIKULA ZABALIK (on-line)**  
Talde presentzialak eta erdipresentzialak

Irailaren 2tik Irailaren 17ra (1. fasea)  
Irailaren 18tik Urriaren 7ra (2. fasea)

Zubizarra Kalea, 1, 48200 Durango  
015054as@hezkuntza.net - 946 01 66 45  
www.eidurangoheo.hezkuntza.net



Aljeriako errefuxiatuen kanpalekueetatik ailegaturiko hamasei ume sahararrek Olazarren pasatu dute uda. EKAITZ HERRERA

#### Ekaitz Herrera ELKARTASUNA

Eguaztenean egin zituzten despedidak, egonaldiak iraun duen bitartean ondoan izandako boluntario guztiak lagun. Merendola, barreak, esker ona, agur esan beharrak sortzen duen berezko urduritasun hori, eta, zelan ez, negar anpuluren bat edo beste ere bai. Diotenez, ezer ez da betiko, eta Mendebaldeko Saharako umeek gure artean egindako egonaldia ere amaierara ailegatu da aurtengoz. Errefuxiatuen kanpalekueetan bizi diren 30 umeek baino gehiagok Durangaldeko aterpetxeetan eta etxeetan igaro dute uda, Lajwad, Río de Oro eta Hamadako Izarrak elkarrean bitartekaritzari esker. Umeek asteon agurtu dituzte harrera herriak, eta Aljeriako errefuxiatuen kanpalekue-tara bueltatu dira jada. ANBOTO Zaldibarren izan da, Olazarren atunduriko aterpetxean, neska-mutikoak joan aurreko azken orduetan.

"Egia esan, egonaldia oso ondo joan da. Iaz ume gutxi izan genuen, eta aurten taldea handitzeko aukera izan dugu. Hamasei neska-mutiko izan ditugu Olazarren", azaldu du Izaro Etxebarriak. Bera da, Garazi ahizpagaz batera, Hamadako Izarrak elkarrean arduradunetarikoa bat. Ahizpa biek azaldu dutenez, umeek onura nagusi bi dituzte aurtengoaren moduko egonaldiekin. "Onuretari-ko bat osasunari loturikoa da. Medikuairenera eramaten ditu-

## Ume sahararrak indarrak hartuta eta 'laster arte' bategaz agurtu dira

Uda Durangaldeko aterpetxeetan eta etxeetan igaro duten ume sahararrek asteon amaitu dute egonaldia. Zaldibarko Olazar aterpetxean hamasei neska-mutikok hartu dute aterpe, Hamadako Izarrak elkarrean eskutik. ANBOTO bertan izan da

gu, dentistarenera. Probak egin dizkiegu ume guztiei. Zeozer txarto badago, konpondu egiten dugu. Eta, bestetik, elikadura dago. Etortzen direnetik joaten direnera arte, hazi egiten dira. Pisua irabazi eta indartu egiten dira", esan du Izaro Etxebarriak. Horrez gainera, ikasketa kulturalak ere eurenaganatzen dituzte. "Etxeko lanak taldeka banatzen ditugu, era mistoan. Denok eginen dugu dena. Eta euskal kulturari dagokionez, abestiak eta zenbakiak erakusten dizkiegu. Hezitzaierik gehienak euskaldunak gara eta umeek asko

**"ZALDIBARKO HERRITAR ASKOREN LAGUN EGIN DIRA ETA ASKO IKASI DUTE EUREKIN"**

ikasten dute gure hizkuntzaz. Gaztelania ere erakusten diegu, etorkizunean baliagarri izan dezaketelako. Gainera, Zaldibarko herritar askoren lagun egin dira eta asko ikasi dute eurekin. Hemengo bizimodua eta ohiturak ezagutu dituzte. Ruben, adibidez, Zaldibarko herritar bat, egunero-egunero etorri da gu bisitatzerara. Bere lagun egin dira. Eta Olazarren egunero-egunero batzen den jubilatua kuadrillagaz ere egundoko hartu-emanan egin dute umeek". "Zelan deitzen dira hemen egin dituzuen lagunak?", galdetu die Garazi Etxebarriak umei. "Graci, Jose Luis, Antonio, Angel...", erantzun dute umeek. "Adineko herritarrekin begirune handiz jokatzeko dute", gaineratu du Etxebarriak.

Neska-mutikok Olazar izan dute udako oasi, baina Euskal

Herriko beste hainbat herritan ere egin dituzte ekintzak. Berdin kostaldean, berdin barrualdean, zein hiri-jendetsu batean. "Deban (Gipuzkoa) surf ikastaro bat egin genuen. Bertan ikastaroak eskaintzeaz arduratzen diren kideak gogotsu eta prest agertu ziren guri erakusteko. Eta Landan, Uribarri-Ganboako urtegiaren (Araba), arraun surf tailerra egin genuen. Umeak pozarren ibili ziren", azaldu du Izaro Etxebarriak. "Bilboko Aste Nagusira ere egin genuen txangoa. Su artifizialak ikustera joan ginen. Umeek flipatu egin zuten espe-

**"UMEAK GATAZKAREN ENBAXADORE DIRA, HAN LURRALDE BAT DAGOELA EKARTZEN DIGUTE AKORDURA"**

rientziagaz; kaleko musikagaz, jendetzagaz. Han ibili ginen, Arriaga antzokiaren aurrealdeko animazio batean, musika kubatarra dantzatzeko ahalegin-tzen! Bilbora joan ahal izateko, laguntza eskatu genion hainbat monitoreri. Begirale bat joan zen ume biko, biak eskutik helduta. Oso formal ibili ziren", gaineratu du Garazi ahizpak. Umeek ere oso argi dute. "Hondartza, surfa eta Bilbo" izan dituzte esperientzien artean gogoangarrienetarikoa.

#### "Enbaxadoreak"

Uda Durangaldean igaro duten Saharako umeek eguaztenean hartu zuten Loiuko aireportutik Aljeriako kanpalekue-tarako hegaldia. Orain euren familiek dauka berriro ere, datorren udan Euskal Herrira bueltatzeko aukeraren zain. Baina, bien bitartean, hamarkada askotan okupazioak eta gerrak baldintzaturiko egoera izango dute bizileku. "Gaur egun, zoritxarrez, beste gerra garrantzitsu asko dago hedabideetan, Palestinakoa kasu. Saharari buruzkorik ez da entzuten, eta ez da hildako zibilen berririk heltzen. Baina gogoratu behar da han gerran daudela eta ume hauetako askoren familiako kideak fronteetan daudela. Borrokak konstanteak dira. Hildakoak daude, baina Marokoko gobernua ez du bertara hedabiderik sartzen uzten. Saharako lurralde okupatuan ere etengabea da jasaten dabilzan errepresioa. Gero, kanpalekue-tako egoera desberdina da. Aljeriak babes apur bat eskaintzen die. Ura ematen die, argindarra. Eta zer egin daitekeen hemendik? Bada, galdera ona da. Ume sahararrak hango gatazkaren enbaxadore dira. Handik irteetan, hona etortzean, han lurralde bat dagoela, gatazka bat dagoela gogorarazten digute. Oroimen hori bizirik mantentzen jarraitu behar dugu, ez dadin ahaztu", azaldu du Garazi Etxebarriak. Izaro Etxebarriak urtean zehar egin diren gainerako kanpainetan parte hartzerara deitu ditu herritarrak: "Elikagaiak bidaltzeko karabanetan lagundu daiteke, harrera familia eginda ere bai". Saharako umeak indarberrituta eta *shukran* (eskerrik asko) esanda bueltatu dira senitartekoengana, datorren udan Durangaldera bueltatzeko ilusioagaz.

## Esperientzia berri eta gogoangarri ugari



**Txipli-txapla.** Eguraldiak lagundu duen aldiro Apatako igerilekuetara joan dira freskatzera eta jolastera.



**Abiadura bizian.** Aldatsa taldearen eskutik, goitibeherekin trebatu dira Zaldibarko kaleetan.



**Beldurrik barik.** Ume sahararrak eroso ibili dira olatu artean. Debara joan eta surf ikastaroa egin dute.



**Gozo eta osasuntsu.** Olazarren boluntario lanetan egondako sukaldariek makina bat plater kozinatu dute.



**Topaketa.** Arabara, Bizkaira eta Gipuzkoara etorritako gainerako ume sahararrekin topaketa egin zuten Bilbon.



**Marijaiari bisita.** Umeak Bilboko Aste Nagusiko su artifizialek eta jendetzak liluratuta etxeratu ziren.

## Begirale, boluntario eta harrera familia egiteko deia, zabalik

Elkarteek "beherakada" igarri dute Oporrak Bakean programako boluntario eta harrera familia kopuruan

### Ekaitz Herrera HARRERA

"Orain urte batzuk, Saharako ia 1.000 ume errefuxiatu etortzen ziren Euskal Herrira uda igarotzera. Aurten, kopurua ez da 200era ailegatzeko". Horixe da Hamadako Izarrak elkarteko arduradunek mahai gainean ipini duten datua. "Beharakada handia gertatzen dabil Oporrak Bakean programaren barruko boluntario eta harrera familia kopuruan. Eta joera hori Euskal Herrian, Espainiako estatuan, Frantziako estatuan eta Italian igarri dugu. Orokorra da. Umeak handik ir-

tetea oso inportantea da. Haien zati osasuntsua izateaz gainera, gatazka oraindino gehiago ahaztu ez dadin laguntzen digute besteoi", adierazi du Izaro Etxebarria arduradunak. Alde horretatik, harrera familia izatera animatu ditu Durangaldeko herritarrak: "Bestela, umeak handik ez irteko arriskua egon daiteke".

Hamadako Izarrak elkarteko kideek bigarren aldia izan dute Olazarren. Ekainaren amaieratik aste honetako eguaztenera arteko hamar asteetan, 40 begiralek baino gehiagok esku har-

tu dute umeen arretan, era boluntarioan. Aste bakoitzean, lau begirale eta sukaldari bi egon dira. Horrez gainera, elkarteko arduradunak kudeaketa lanetan ibili dira; azken hauek aste guttietan. "Monitoreetariko asko

### "ORAIN URTE BATZUK IA 1.000 UME ETORTZEN ZIREN EUSKAL HERRIRA; GAUR EGUN, IA 200"

aurrez gugaz lan egindakoak izan dira. Gazteagoak ere etorri zaizkigu, gogotsu hasi direnak. Baina, edozelan ere, geroago eta gehiago kostatzen da boluntarioak topatzea", esan du Izaro Etxebarriak.



Umeak eta begirale boluntarioak, Olazarren olgetan. EKAITZ HERRERA



Eremu berdeak sortu dituzte Larrinagatxu erreken eta etxebizitza blokeen artean. EKAITZ HERRERA

## Aramotz auzoak itxura berria estreinatu du

Durango Aramotz auzoa berritzeko lanak amaierara ailegaten dabilta apurka-apurka. Irigarritasuna hobetu eta gunee berdeak sortu dituzte errekaostoen eta etxebizitza blokeen artean. Datozen hileetan igogailuak instalatuko dituzte

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Urte asko dira Aramotz auzoko bizilagunak urbanizazioa berritzeko beharriaz azpimarratzen hasi zirela. Iazko udaberrian obrak hasi zituzten, eta orain, azkenean, hainbeste denboran itxarondako emaitza heldu da auzotarrengana: Aramotz auzoak itxura berria estreinatu du Durango Udalak eta Eusko Jaurlaritzak egindako inbertsioari eskerrak.

Proiektuak goitik behera eraldatu du urbanizazioa. Bizilagun guztientzat egin dute eremua irigarri, eta, Larrinagatxu errekaosta desbideratuta, hainbat egonleku sortu dute errekaostoen eta etxebizitza blokeen in-

guruan. Eremu berdeak eta zuhaitzak ipini dituzte, iturriak, eta argiztapena eta saneamendua hobetu dituzte. Horrez gainera, goi tentsioko linea lurperatu egin dute. Edozelan ere, oraindino lan bi egin barik daude. Aramotz 1 eta 13 arteko etxebizitza blokeen barruko patioa berritzea da bata, eta blokeetan igogailuak ipintzea bestea. Igogailuak 2025. urtearen hasierarako egongo dira erabilgarri; patioa, urte bereko udaberriarako.

Auzokideek, Durango udal ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzako agintariek uztailaren amaieran egin zuten urbanizazio berria inauguratzeko ekitaldia. Mireia Elkoroiribe alkateak

azpimarratu zuenez, obra "estrategikoa" da "Durango hiri berdeago, jasangarriago eta integratuago bihurtzeko". Eremua edertzeaz gainera, bertako "bizilagunen lankidetzaren sustatzen duten espazio publikoak" sortu dituztela azaldu zuen. Bestalde, Miguel Angel Paez Lurralde Plangintza eta Hiri Agenda sailburuordeak azpimarratu zuenez, "eraldaketari eskerrak herritarren bizi kalitatea hobetuko da".

Eraberritzeak 2.200.000 euroko aurrekontua izan du, eta Eusko Jaurlaritzako diru laguntzekin, Durango Udaleko aurrekontuaren zati batez eta Europako Next Generation funtsekin finantzatu da.

## Ekitaldi gastronomiko ugari Ibaizabal auzoko jaietan



Jaietako irudi bat. EKAITZ HERRERA

**Maialen Zuazubiskar** DURANGO

Durango Ibaizabal auzoan jaiak ospatuko dituzte irailaren 6tik 8ra. Egitarauan ekitaldi gastronomikoak eta musika kontzertuak nabarmentzen dira. Batetik, marmitako txapelketa eta paella herrikoia izango dituzte. Bestalde, musikaren atalean, Akustic Covers, Grace of Dionisus, Kohatu eta DJ Kapi izango dira.

Egitarauko xehetasunak [anboto.org](http://anboto.org) atarian kontsultatu daitezke.

## Bozketa, Durangoko kale eta plaza berri banari izena ipintzeko

Udalak bozketa fasea zabalduko du, irailaren 9tik 15era, herrian egin berri dituzten eremu bi izendatzeko

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Proposamenetarik batek Leopoldo Zugaza kalea dio. Zestereua eta Gerediaga Elkartea kalea dira aukeratariko beste batzuk. Eta plazari dagokionez ere, antzera. Aukeren artean daude Marisa Barrena Larruzea plaza, Bidebiarte edo Jose Luis Baque izendatzea. Durango Udalak aurrera jarraitzen du herrian sorturiko plaza eta kale berri banari izena ipintzeko prozesuagaz. Irailaren 9tik 15era bitartean bozketa fasea zabalduko du [partehartu.durango.eus](http://partehartu.durango.eus) atarian, 16 urtetik gorako herritarrek izen berriak erabakitzeko aukera izan dezaten. Hogeita lau izendapen daude aukeran. Hamalau kalea izendatzeko, eta hamar plaza izendatzeko.

Kale berria Komentukaletik —Kurutzia kaleagaz elkartzen

den gunea— Santasusanoste kaleraino zabalduko da. Gaur egun etxebizitzak eraikitzen dabilta inguruan. Bestalde, plaza berria Zirarmendieta, Bernardo Gabiola eta Faustebidea kaleen artean egongo da, urbanizazio lanak dauden eremuan.



Plaza berria. DURANGOKO UDALA

## Zaldia saskibaloitza taldeak Jabier Sampedro omenduko du

Omenaldi ekitaldia irailaren 14an egingo dute. Sampedroren omenezko plaka inauguratuko dute

**Ekaitz Herrera** ZALDIBAR

Irailaren 14a oroimenera iltzatuta geratuko den eguna izatea gura du Zaldia saskibaloitza taldeak. Egundik Jabier Sampedro omenduko dute, urte askoan saskibaloitza taldeko zuzendaritzan eta presidente lanetan ibilitako kidea. Kirol taldeak sare sozialen bitartez adierazi duenez, urte hauetan guztietan egindako lana aitortu gura diote Sampedrori.

Omenaldi eguna Zalduren eta Getxoren junior mailako emakumeen arteko partiduagaz hasiko dute, 10:00etan. 12:00etan, Sampedroren omenezko plaka inauguratuko dute, eta, segidan, Zalduren eta Tabirakoren arteko gizonezkoen senior mailako partidua jokatu dute. Kirol ekintzak amaituta, bazkari herrikoia egingo dute, 14:30ean, eta arratsaldean, 17:00etan, sas-



Jabier Sampedro martxoan hil zen. EAJ

kibaloitza taldeak aurkeztu eta argazki ofizialak egingo dituzte. Eguna musikagaz amaituko dute. Hatxe talde zaldibartarrak eta Teso musika jartzaileak emanaldiak egingo dituzte, 18:30ean eta 21:00etan, hurrenez hurren.



*Durangaldeko argazki irakaslea 2023*

# UDA KO 10. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak webgunera edo bidali 688635041 zenbakira irailaren 15era arte

2 KATEGORIA, 4 SARI

#### DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

#### DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

Info\* [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK

  
databost  
intertek & teknologia

  
ERRIGORA



Garai  
Landetxea



Izurtzako dantzariak plazako saio batean. ARTXIBOKO IRUDIA

## Urte bi pasatu eta gero, Mendigain bueltan da

Izurtzako dantzariak 2022tik saiorik egin barik egon dira. Jaietan, lurretako dantzariak ordezkatu izan dituzte. Aurten, Mendigain berriro bueltatuko da herriko jaietan. Saio bi egingo ditu gainera, Santa Agedan eta Santo Tomasen

### Saibigain-Iturriotz pase lerroko postuen zozketak, irailan

J.D. MAÑARIA

Mañariko eta Izurtzako Mugarra Ateneo Zinegetikoak Saibigain-Iturriotz pase lerroko postuen zozketak egingo ditu irailan, Mañariko Herriko tabernan.

Urriko baimenen zozketa orokorra irailaren 13an izango da, 20:00etan. Eskaerak aurkezteko azken eguna irailaren 11 da. Bestalde, bazkideen zozketa irailaren 17an egingo dute, 19:00etan. Adierazitako egunetan jaso ez diren baimenak lehenengo ehiztari eskatzaileari emango dizkiote, irailaren 20tik aurrera.

### Azaroko baimenak

Azaroko baimenen zozketa orokorra irailaren 27an izango da, 20:00etan. Kasu honetan, irailaren 26ra artekoa da eskaerak aurkezteko epea. Bazkideen zozketa urriaren 15ean egingo dute, 19:00etan.

Eskaerak Izurtzako Herriko Tabernan eta Antonio Txiki okindegian batu eta utzi daitezke, astelehenetik barikura.



Atxondoko igerilekuan hainbat ekintza egin dute abuztuan zehar.

## Apar festa egingo dute Apatako igerilekuan

Domeka honetako jaietan puzgarriak ere ipiniko dituzte

J.D. ATXONDO

Udako denboraldia amaitzera doa Apatako kanpoko igerilekuan. Domeka honetan itxiko ditu ateak, irailak 1, eta denboraldia behar den moduan agurtzeko, apar festa antolatu dute. Atxondoko Kultura Mahaiak antolatu du ekimena eta puzgarriak ere egon-

go dira umeen eta bertaritzen diren denen gozagarri.

Abuztuan zehar bestelako ekintzak ere antolatu dituzte Apatako igerilekuan. Esaterako, Eleder magoaren magia ikuskitunagaz eta Pituxa clown kontariaren saioagaz gozatzeko aukera egon da.

Joseba Derteano IZURTZA

Izurtzako Mendigain dantza taldea bueltan da herriko jaietan, urte biko parentesiaren ondoren. Izan ere, 2022an eta 2023an lurretako dantzariak aritu dira jaietan, baina aurten Izurtzako dantzariak hartuko dute lekukoa berriro.

Saso batean, jaietan ez ezik, dantzaren inguruko bestelako ekitaldietan ere parte hartzen zuten Mendigainek, hala nola Durangaldeko Dantzari Dantza egunean eta Bizkaiko Dantzari Egunean. Gerora, azken urteetan, jaietara eta San Nikolas egunera mugatu izan dituzte euren saioak. Baina 2022an eta 2023an ezin izan zuten taldea osatzeko adina kide batu. Arrazoiak da urte askoan ibilitako dantzariak beste konpromiso batzuk izan dituztela, eta, gainera, atzetik ez da etorri eurak ordezkatzeko zituen erreleborik.

Baina orain berriro denbora hartu dute entseguak egin eta saioak prestatzeko, eta bueltatu egingo dira. Jaietan hamasei dantzari arituko dira, zortzina gizon eta emakume. Batzuk Durangaldeko beste herri batzue-

tako dantzariak dira. Oraingoa ez da hori gertatzen den lehenengo aldia, dantza taldeko kideen esanetan. Aurretik ere, momentu puntual batzuetan, herrikan kanpoko dantzarien laguntza izan dute saioak aurrera ateratzeko.

### Dantza saio bi

Izurtzako jaiak gaur hasiko dira. Tradizioari eutsiz, domeka honetako jaieguna Santa Ageda ermitaren inguruan ospatuko dute eta Mendigain dantza taldeak hantxe egingo du lehenengo saioa, 12:00etan. Baina beste saio bat ere izango dute, irailaren 7ko zapatuan, Santo Tomas parkean, Gertufest jaialdian. Bietan lau-bost txistulariren laguntza izango dute.

Ekitaldi bietan antzerako saioa egingo dute. Zortzi dantzariagaz Dantzari Dantza zentzuzko dantza egingo dute lehenengo, eta, ondoren, hamasei dantzariak batera arituko dira.

Etorrizunera begira, "ikusitako egin behar", esan dute. Printzipioz, jarraitzeko borondatez bueltatu dira, baina denborak esango du hori.

## Doako clown ikastaroan parte hartzeko aukera, Atxondon

Cecilia Paganinik sei egunetako saio intentsibo bat emango du. Irailaren 12ra arte eman daiteke izena

J.D. ATXONDO

Clown munduan esperientzia zabala duen Cecilia Paganini aktoreak Barregarria izatearen plazera izeneko clown ikastaroa emango du Atxondon, irailan. Klaseak sei egunetan izango dira: irailaren 16tik 18ra eta 23tik 25era. Ordutegia honako hau da: 18:00etatik 20:30era.

Atxondoko Kultur Mahaitik antolaturiko ikastaroa doakoa da. Izen ematea irailaren 12ra arte egin daiteke, modu bitarra: [liburutegia@atxondo.eus](mailto:liburutegia@atxondo.eus) helbide elektronikoan eta 697 196 748 telefonoan. Atxondarrek lehen-tasuna izango dute.

"Ikastaro honeguz clowna, umorea eta antzerkiko teknikak sakontzeko aukera paregabea dago. Lotsa jolasen, umorearen, lelokerien, trakestasunaren eta emozioen bitartez eraldatzeko aukera eskainiko du Cecilia



Cecilia Pagagini. GANSO&amp;CIA

Paganinik", esan dute antolatzailleek ikastaroari buruz.

Cecilia Paganini Ganso&Cia antzerki konpainiako kidea da eta clown ikastaro bat baino gehiago eman du konpainiak Izurtzan duen Korrala Sormen Gunean.

# OSTALARITZA GIDA

DURANGO

DURANGO

IURRETA

DURANGO

ZORNOTZA

## BASA Eroateko janaria

## IBAIZABAL

## GAUARGI

## XIBERU



Untzillatx, 9  
Tel.: 747 421 104

Ibaizabal taldea, 2B  
Tel.: 946 550 185

Dantzari, 4 behea  
Tel.: 944 356 674

Zeilia Gallartzagoitia, 9  
Tel.: 946 181 758

Etorri eta eraman edonon jateko gure sukaldean prestatutako platerak. Kuxkuxeatu gure instagramean menua, karta eta nobedade guztiak.

Plater konbinatuak, hanburesak, ogitartekoak eta kazolatxoak. Ostiraletan pintxopotea!



Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

 @basa.durango



 @gauargitaberna

 Xiberu Taberna  
 @xiberutaberna



## PROPI

## OLAJAUREGI





Larrea, 5  
Tel.: 611 107 004

Kurutziaga, 52  
Tel.: 946 200 864

Etxeko eguneko menua, asteburuko menua eta oilaskoak.

Ostegun eta ostiral eguerdian 26€-tan eguneko menua; bestalde, ostegunetik igandera eguerdian 'Dastatze menua' 45€-tan. Gauetan, 'Pikoteo' izeneko karta berezia. Zuek ezagutzeko prest gaude! Etorri eta gozatu gure jaki, ostatu eta jatetxeaz.

 @propijatetxea

 Hotel Olajauregi  
 @hotel\_olajauregi\_jatetxea

# Enrique Contreras gudariaren gorpuzkiak identifikatu dituzte

Espainiako gerran desagerturiko hirugarren gudari baten gorpuzkiak identifikatu dituzte Zornotzako hilerrian; Enrique Contrerasenak dira; egin duten indusketa kanpaina berrian beste 11 gorpuzki aurkitu dituztela jakinarazi dute

**Jone Guenetxea** ZORNOTZA

Espainiako gerran desagerturiko hirugarren gudari baten gorpuzkiak identifikatu dituzte Zornotzako hilerrian: María Jesús San José Justizia eta Giza Eskubideen sailburuaren esanetan, Enrique Contreras zenaren gorpuzkiak dira identifikatutakoak. Horrez gainera, hilerrian egiten dabilzan hirugarren indusketa kanpaina beste 11 gorpuzki aurkitu dituztela baieztatu du sailburuak. Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak erakundearen arteko lankidetzara gozatu gura izan zuen: "Gerra zibilean ahazturiko horiei izen-abizenak itzultzeko Gogora eta Aranzadi egiten dabilzan lana ikaragarria da", azaldu zuen.

Enrique Contreras Linareskoa (Jaen, Espainia) zen, eta Aretxabaletan (Gipuzkoa) bizi zen 1930etik. Gerran hil zen, 1937ko apirilaren 6an, Diman (Bizkaia).

Hirugarren indusketa kanpaina hamaika gorpuzki aurkitu



Aranzadi kideak eta ordezkari politikoak, Zornotzako hilerrian.

dituzte. Lourdes Herrasti Aranzadi Zientzia Elkarteko kide eta indusketa arduradunaren esanetan, hobi bakarrean lurperatuta topatu dituzte, eta gerra garaiko ospitalean hildako per-

tsionen gorpuzkiak dira, zantzu gutzien arabera. Aurreko kanpainetan, 86 pertsonaren gorpuzkiak aurkitu eta lurpetik atera zituzten; dagoeneko hirurenak identifikatu dituzte.



Zornotzako Udalak.

## 155 herritarren iritzia batu dute aurrekontu parte hartzaileetan

Zornotzako Udalak 2025eko aurrekontu parte hartzaileetarako 155 proposamen jaso ditu

**A. M. ZORNOTZA**

Zornotzako Udalak joan zen apirilaren 1ean hasi zuen 2025eko aurrekontu parte hartzaileetarako proposamenak batzeko epea. Lehenengo fasean 155 proposamen jaso ditu, norbanakoenak eta elkarteenak. Orain, bigarren fasean, proposamenak ikuspegi juridiko, ekonomiko eta teknikoak aztertzen dabilza. Irizpide horietakoren bat betetzen ez dutenak baztertu egingo dituzte. Fase honek irailaren 30era arte iraungo du eta kasuan kasuko udal sailek baloratuko dituzte proposamenak; bidera-

garriztat jotzen dituzten proposamenak lehenetsiko dituzte proiektuan sartzeko.

**Hirugarrena, udazkenean**

Hirugarren eta azken fasean, 2025erako udal aurrekontuetan baliozkotutako eta lehenetsitako proposamenak sartuko dituzte. Udala arduratuko da onarturiko eta onartu bako proiektuei buruzko informazio publikoa emateaz. "Aurrekontuan ez sartzeak ez du esan gura proiektu horiek etorkizunean gauzatuko ez direnik", zehaztu dute udal iturriek ohar baten bitartez.

## Elorrioko Udalak hiru biltegi erosi ditu udal brigadakoentzat

Elorrioko Udalak hiru biltegi berri erosi ditu, brigadak orain artean erabilitako biltegia txiki geratu delako



Biltegi berrietariko bat.

**A. M. ELORRIO**

Elorrioko Udalak hiru biltegi berri erosi ditu udal brigadarentzat, aurrekoa txiki geratu dela iritzita. Biltegi berriak Oidor Berriozabalbeitia kalean daude, orain arte erabilitako biltegiaren alboan. "Brigadako langileen antolaketa eta lanerako baldintzak hobetuko ditugu honela. Izan ere, aurrerantzean leku gehiago izango dute eguneroko zereginetarako behar duten material guztia erraz biltegitartzeko eta eskuratzeko", azaldu du udalak. Bestalde, Elorrioko Udalak kirol elementuak ipintzen hasi da Ganondon. Horixe izan zen, hain zuzen ere, iazko aurrekontu parte hartzaileetako proiektu irabazlea. Gu- neak hiru elementu izango ditu: CUat-sarea, ping-pong mahaia eta kalistenia zirkuitua.

## Berrizburu kiroldegiko estalkia ipintzeko lanak, amaitzear

Estalkia guztiz berrizteko asmoagaz ekin zieten lanei uztailen; 130.000 euroko aurrekontua dute lanetarako

**A. M. BERRIZ**

Berrizko Udalak Berrizburu kiroldegiko estalkia berrizteko lanei ekin zien uztailen. Eraikina 1980ko hamarkada hasieran eraiki zela nabarmendu du udalak, eta gaur egun, "narriadura zantzu nabarmenak" edukitzeaz gainera, ez ditu betetzen kirol azpiegiturei eskatzen zaizkien gutxienezko isolamendu termiko eta erosotasun baldintzak. Horren ondorioz, Berrizko Udalak estalkia guztiz berriztea erabaki zuen. "Funtsezkoa da udal instalazioak ahalik eta baldintzarik

onenetan egotea, eta estalki berri honek kalitatezko jauzia egingo dugu isolamendu termikoaren araudira egokitzeko, eta, aldi berean, eraginkortasun energetikoa eta udal eraikinen iraunkortasuna hobetzeko", azaldu du Orlan Isoird Berrizko alkateak.

Uztailen xaflazko eta polikarbonatozko hormak desmuntatzen hasi ziren, gero polikarbonato zelularreko plaka berriak ipintzeko. Lanen esleipen prezioa 136.282,20 eurokoa da, BEZa barne.



# OSASUN GIDA

 **Podologia**  
PSE: 214/06

  
**Ainara Urreta Jainaga**  
OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA  
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA  
NEURRIARA EGINDAKO PLANTILAK  
Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA  
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**  
PSE: 162/13

  
**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA  
- JOKABIDE OPTOMETRIA - HAURREN IKUSMENA  
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA - JATORRIZKO ERREFLEKUA - FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA  
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA - KIROLO IKUSMENA - GARUNeko LESIOAK - UKIPEN LENTEAK  
- DRTO-KETA MIOPAREN KONTROLA  
Arkat 3 - 48240 Berriz - Tel: 946 225 099  
www.keinuoptometrizentroa.com

 **Proktologia**  
PSE: 16/22


  
Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua  
Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia (MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
info@proktos.clinic

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

  
**ZAINDUZ**  
Fisioterapia + Osteopatia  
Pilatesoko klaseak eskaintzen ditugu. Solo pertsonalizatuak dira, talde txikietan.  
Trañabarren 13, 4. blokea beheko eskuma  
MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16

  
**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia  
Muretatorre, 2D  
DURANGO  
pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13

  
**clinicadental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria  
ODONTOLOGIA OROKORRA - INPLANTOLOGIA - KIRURGIA - ORTODONTZIA OHIKOA (DAMONO ETA IKUSEZINA) - ODONTOPIEDIATRIA - PADI - HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO ESKANERRA (TERO ETA CBCT)  
( Muretatorre, 2C blokea, beheko - 48200 Durango )  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
uecdental@gmail.com

 **Naturopatia eta Homeopatia**

*Aurora Julia*  
**HOMEOPATIA · NATUROPATIA OSASUN INTEGRALA**  
Umeak - Helduak - Nagusiak  
Ordua hartzeko:  
**946 204 218**  
Txanporta Plaza, beheko - Abadiño  
[www.aurorahomeopata.eus](http://www.aurorahomeopata.eus)  


 **Psikologia**

  
**gure**  
Zure bidelagun  
Haur, nerabe eta helduentzat  
- ikasketa-arazoak, arazoak eta estresa, depresioak, eskola eta ikasleko arazoak, arazoak partean, familia-arazoak, partener-arazoak, esperimentu kognitiboak, eraginak, hilkuntza-arazoak, kognitiboak, elkarburu-parteketa, diskalkula eta besteak.  
**623 173 181 - 613 038 933**  
Andra mari 16 ID Durango

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

  
**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konplazante Herri Mirilla Durango  
DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.  
Dokumentuak  
Astelehenetik ostiraurerik: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00  
Laruntz: 10:00tik hasita  
944 14 50 36 | 620 15 30 30  
Astelehenetik ostiraurerik: 15. 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinicadentalviteri.com](http://www.clinicadentalviteri.com)

**anboto  
kide**

Anbotokideen  
txokoa

## IRAILEKO ZOZKETAK



Alcamporen eskutik Euskal Herriko produktuen otzara.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz: Zornotza.



Aukan izozkiak. 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.

**Okm:**

batzen gaituen  
distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman  
izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Bidebarrieta kaleko aparkaleku berria zabalik dago lurretan

Aparkalekuak ia 100 leku ditu egoiliarrentzat. Kalea oinezkoentzat bihurtzeko lanak lizitazio fasean daude

**A.B. IURRETA**

Iurretako Bidebarrieta kaleko aparkaleku berria erabilgarri dago joan zen uztailaren 22tik. Parking berriak egoiliarrentzako 94 leku ditu; horietariko hiru egokituak dira.

Aparkaleku berria Bidebarrieta kalea berrurbanizatzeko lanekin dago lotuta. Izan ere, kale horretan oinezkoentzako espazioa handitu gura dute; guztira, 1.100 metro koadro baino gehiago bideratuko dira oinezkoentzat. Horretarako, gaur egun kale horretan dauden autoentzako



Aparkaleku berria. ANBOTO

aparkalekuak kenduko dituzte. "Libre geratuko den espazioak egonaldietarako eta oinezkoentzako espazioak handitzeko balioko du", azaldu dute. Proiektua lizitazio fasean dagoela, jakinarazi zuten udaletik uztailean.

**EH Bildu: "Txapuza bat"**

EH Bilduk aparkalekua "380.000 euroko txapuza" bat dela salatu izan du: "Sarbidea estua da, eta, sarrera eta irteerak leku beretik izanda, bidean ez dira auto bi sartzen". Bestalde, inguru horretatik hainbat oinezko eta txirrin-dulari igarotzen direla-eta "arriskutsua" dela azpimarratu dute. "Bidegorria egin dute bide izkinan, baina oso estua da eta ez dago argi norentzat den", gaineratu dute. Inguruko auzokideek kezak aurkeztu dituztela adierazi dute.



Baso lanetako lan baldintzak hobetzea eskatzeko elkarretaratze bat. ARTXIBO IRUDIA

## Iurretan baso lanetan zebilen langile bat hil dela salatu dute

Euskal Herrian aurten lan istripuz hil den 36. behargina da, LABen esanetan. Sektoreko lan baldintzak salatu dituzte

**A.M. IURRETA**

Iurretan behargin bat lanean zebilela hil zela salatu zuen LAB sindikatuak aurreko astean. Baso lanak egiten zebilela hil zen langilea, abuztuaren 14an, sindikatuak ohar batean jakinarazi zuenez. Euskal Herrian lan istripuz hil den 36. behargina da, gaineratu zuten.

Sektoreko lan baldintzak "geroago eta eskasagoak" direla salatu zuen sindikatuak, eta hildakoaren senide eta hurbilekoei elkartasuna eta babesa agertu zizkieten. "Basogintza sektorean arriskuak handiak

dira. Makina arriskutsuekin lan egiten dute, lur malkartsuetan, eguraldi txarra egiten duenean... eta, gainera, lan baldintzak geroago eta eskasagoak dira", azaldu zuten.

**Ikerketa hasteko eskaria**

LAB sindikatuak ikerketa hasteko eskatu du. "Kezkagarria eta aztoragarria iruditzen zaigu urterik urte lan istripuak ugartzea. Gorakada hori prekari-zazio politikaren eta erakundeek lan osasunaren arloan duten kontrolik ezaren ondorio dira", nabarmendu zuten.

## Otxandioko Turismo Bulegoak 159 lagun hartu ditu

EAEkoak ez ezik, Espainiakoak, Europakoak eta AEBetakoak joan dira plazako Turismo Bulegora

**A.B. OTXANDIO**

Otxandioko Turismo Bulegora 159 bisitari joan dira, uztailean zabaldu zenetik. Bizkaitarrak izan ziren gehienak. Ondoren, katalanak eta madrildarrak. Hala ere, Alemaniatik, Frantziatik, Ingalaterratik, Suitzatik eta Belgikatik etorritako turistek ere eman zieten informazioa. Guztira, 58 lagun joan ziren.

Abuztuan, 101 pertsonari eman diete arreta. EAEko bisitariak izan dira gehienak. Hurrengo, Espainiako Estatukoak, gehienak katalanak eta valentziarrak. Baina Ciudad Realekoak, Sevilakoak, Kanarietakoak, Burgo-sekoak, Murtziakoak eta Kadi-zekoak ere etorri dira. Portugaletik, Frantziatik eta AEBetatik etorritako turistak ere hartu dituzte, Turismo Bulegoko Arrate Lekuek azaldu duenez. Gortebeiko eta Urkiolako parke naturalen inguruko informazioa eskatu dute, batez ere.

## Urkiolara errogatiba santurik barik egingo dute aurten

Santua ez dute errogatiban eramango Andra Mariko ermitatik Urkiolara, "boluntariorik ez dagoelako"

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO

Abuztuaren 31n errogatiba eguna ospatuko dute Abadiñon. Orain arte, ohikoa izan da San Rokeren irudia Andra Mariko ermitatik Urkiolara errogatiban eramatea. Baina aurten ez da horrela izango, aurten ez dute santua errogatiban eramango. "Erabaki gatxa baina beharrezkoa izan da Abadiñon jaiegun honen jarraipena ziurtatzeko", adierazi dute udal iturriek.

Santurik barik bada ere, egun osoko egitaraua antolatu dute errogatiba eguna ospatzeko.

09:00etan ibilaldia egingo dute Urkiolara, 11:30ean meza izango da bertan, eta 12:45ean dantza saioa Talde Batuak eta Txanbolin txistulari taldearen eskutik. 14:00etan jubilatuen bazkaria egingo dute, eta, ondoren, ohiko txitxarrilloa. Iluntzerako, gisatua eta Lotxo taldearen erromeria antolatu dituzte Txanporta plazan.

Errogatiba egunari eragingo dion beste kontuetariko bat Abadiñoko Udalak onartu berri duen lege berria da: Alkoholismoaren Prebentzioari Buruzko Ordenantza. Bertan ageri da udalak ez

duela edari alkoholdunak erosi edo banatuko diru publikoa erabilita.

Orain arte, Abadiñoko jai ekitaldietan edari alkoholdunak banatzeko ohitura egon da urterik urte. Baina hemendik aurre-

## SANTURIK BARIK BADA ERE, EGUN OSOKO EGITARAUA ANTOLATU DUTE ERROGATIBA EGUNERAKO

ra ez. Esaterako, udal ordezkariak ardoa banatu izan diete erromesei errogatiba egunean, baina ordenantza hau onartuta ez dute horrelakorik egingo. Udalbatzako alderdi politiko guztiek onartu dute.



Urkiolarako errogatiba egunean, udalak ardoa banatzeko ohitura izan du.



Iturritxo kalearen hegoaldea.

## Zelaietako mugikortasuna eraldatzeko lanak hasi dituzte

Herri galdeketan erabakitako hiru proiektu gauzatzen dabilta; gainerakoak aurrerago egingo dituzte

**Ekaitz Herrera** ABADIÑO

Maiatzeko herri galdeketan erabakitakoari jarraituta, Abadiñoko Udala Zelaietako trafikoa eraldatzeko neurriak hartzen hasi da. Epe motzera hiru proiektu gauzatu gura dituzte. Lehenengo dagoeneko eginda dago, Iturritxo kalearen hegoaldean ibilgailuentzat noranzko biko bidea egitea. Horrez gainera, trinketeko aparkalekuan ere aldaketak egiten dabilta. Aparkalekuak eta sartu-irtenak berantolatu eta oinezkoentzako zein ibilgailuentzako seinaleak eta pasabideak markatzen hasi

dira. Bestalde, irailean Ferialekutik trinketerako bidean norazko bi ahalbidetzea aurreikusi dute.

Herri galdeketan aurkeztu ziren beste proiektu biei dago kienez, Zeletabe udazkenean zehar irekitzea dago aurreikusita alde batetik, segurtasun neurriak martxan ipinita. Bestetik, trafikoa barrualdetik errepide orokorrera bideratuko duen biribilgunea hurrengo fase batean egitea aurreikusten da. Udalaren berbetan, aldaketa hauek guztiak maiatzeko herri galdeketan izan ziren emaitzen ondorio dira.



Orbeak Mallabian du egoitza nagusia.

## Orbeak Mallabian duen presentziak "hazten" segituko du

Gaur egun, Kooperatiban dabilta 1.000 langileetatik 800ek baino gehiagok Mallabian lan egiten dute

**Joseba Derteano** MALLABIA

Orbea bizikleta markak Mallabian duen presentziak "etorkizunean hazten" jarraituko duela iragarri du Mallabiko Udalak ohar batean. Hedapena Mallabiko Udalaren "laguntza estrategikoari eskerrak" egingo dela nabarmendu dute, ekoizpen-instalazio berrietan "inbertsio handia egin ahal izateko baldintzak betetzen lagundu baitu".

"Guretzat harro egoteko modukoa da Orbearen moduko enpresa garrantzitsu bati babesa ematea. Lana sortzeaz gainera, Mallabia munduko txirrin-

dularitzaren gune nagusia ere bada", adierazi du Igor Agirre Mallabiko alkateak.

**Orbearen ibilbidea**

Orbearen ibilbidea 1840an hasi zen, Eibarren, arma fabrikatzailer legez, eta 180 urte baino gehiagotan eboluzionatu du. Azkenean, txirrinbidera munduko izen handienetarikoa bat izatera heldu da. 1931n bizikleten ekoizpenari ekin zionetik, enpresa hazi eta dibertsifikatu egin da, egoitza nagusia Mallabian ipinita. Bertan, 800 lagun baino gehiago dabilta lanean.

## Garaiko landetxeak pozik udako balantzeagaz

Garaiko Landetxeko eta Oar Cottageko kideek udako denboraldiaren balantze ona egin dute

**Ekaitz Herrera** GARAI

Garaiko landetxeetako ardura-dunek pozarren amaitu dute udako denboraldia. Jasoriko bisitari kopurua "oso ona" izan dela diote. Jasone Gezuraga Garaiko Landetxeko arduraduna da. Dioenez, uztaile eta abuztua "oso ondo" joan dira, "zoragarri". "Kataluniatik, Madrildik, Murtzia eta Andaluzia aldetik etorri zaizkigu bisitariak. Belgikatik, Frantziatik, Danimarkatik eta Norvegiatik ere bai. Euskal Herria ezagutzeko asmoz etortzen dira eta Garai izaten dute askotan lo-leku. Batzuk freskura bila etortzen dira, batez ere bisitari espainiarrak", esan du. Oar Cottage landetxeko Carmen Cuesta arduradunak ere balorazio berdintsua egin du. "Bartzelonatik eta Madrildik etorri zaizkigu bisitarien erdiak. Europa aldetik ere bai. Ingurumenaz, gastronomiaz eta ibilaldiez gozatzera etortzen dira", azaldu du.

## Irailaren 15era arte martxan da ANBOTOren argazki lehiaketa

Lehiaketarako argazkiak [anboto.org](http://anboto.org) atarira igo daitezke, edo 688 635 041 whatsapp zenbakira bidali

**Maialen Zuazubiskar** DURANGALDEA Hamargarren urtez, ANBOTOk bere irakurleen argazkilari senari bidea eman eta udako argazki lehiaketa martxan ipini du. Aurten ere arlo bitan aurkeztu daitezke argazkiak: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena. Argazkiak munduko edozein tokitatik bidali daitezke [anboto.org](http://anboto.org) atarira, lehiaketarako propio sorturiko atalera, irailaren 15era bitartean. Era

berean, 688 635 041 whatsapp zenbakira ere bidali daitezke.

Irakurle saridunak aukeratzeko bozketa irailaren 16tik 22ra egingo da. Kategoria horretan, eskualdeko eta Durangaldetik kanpoko argazkiak lehiatuko dira. Epaimahaiaren saria ere egingo da.

Sarien artean, honako hauek daude jokoan: samartbox bat, Databostek emandako bluetooth aurikularrak, egonaldia Garai-ko Landetxean, eta Errigoraren produktuekin osaturiko otzara.



lazgo argazki bat. IKER ZUBIZARRETA



POLITIKAN

MARKEL LARRUSKAIN  
EH- BILDU

## Norabide gabe

Ikasleek agendak erosten dituzte, gurasoek seme-alaben eskolaz kanpoko jarduerak aukeratzeko dituzte eta ekonomia familiarra deituriko hori kudeatzeko excell taula bat egiten dute askok gastuak kontrolatuta izateko. Hipotekak, aseguruak, zergak eta kotxeko olio aldaketak jasotzen dira taula horretan, besteak beste.

Abuztua bukatzen ari da eta badator ikasturte hasiera. Sasoi hau zereginak planifikatu eta aurrera begirako erronken inguruan hausnartzeko momentua izan ohi da, baina nork bere bizitza ordenatzeko erabakiak hartzeaz gain, ondo legoke herri bezala orain artekoen inguruan hausnartu eta zein bidetik joan nahi dugun erabakitzea.

Durangoren azken hiru hamarkadetakoa garapen eredu ekonomia familiarra baino sinpleagoa izan da. Lur publikoa etxebizitzaren eraikuntza proiektuei saldu eta hortik jasotako dirua zerbitzuetara bideratutako azpiegituren eraikuntza eta mantenturako erabili da.

Eraiki gabeko lurrik ez dago apenas, eta hamarkada baten gutxi gorabehera etxebizitzara bideratutako lursailik ez da egongo; beraz, momentu egokia da nondik eta nola biziko garen hausnartzeko. Eztabaidak zintzoa eta kolektiboa izan behar du eta ezinbestekoa izango da udalaren funtzioa; bestela, inertziak kudeatzen ibiliko gara norabide gabe.

## DURANGALDEA ASTEON

### 'Dragonkeeper' filma ikusteko aukera Otamotzenan

**DURANGO** Durangoko Udalak, Zugaza Zinemagaz elkarlanean, aire zabaleko zine emanaldia egingo du gaur. *Dragonkeeper* filma proiektatuko dute eta saioa 22:00etan hasiko da, Otamotzena parkean. Eguraldi txarra eginez gero, zine saioa Andra Mariko elizpean egingo dute. Gaurkoa Durangoko Udalaren eta Zugaza Zinemaren arteko elkarlaneko bigarren proiektzioa da. Uztailaren 27an *Vaya vacaciones* filma eman zuten.

### Banartek 16. antzerki tailerra ipiniko du martxan

**ABADIÑO** Banarte antzerki taldeak 16. antzerki tailerra ipiniko du martxan 14 urtetik gorako antzerkizaleentzat. Mikel Areitioaurtena aktore ermuarra izango da aurtengo ikasturteko dinamizatzailea. Saioak eguenetan izango dira (otsailetik aurrera baita martitzenetan ere), irailean hasi eta ekainera bitartean, 18:30etik 20:30era. Ikastaroak ehun orduko iraupena izango du eta matrikulak 450 euro balio du.



### Faustebekoako bidegorri berria, zabalik

**DURANGO** Durangoko Udalak bidegorri berria eta Faustebekoako oinezkoentzako pasealekua zabaldu ditu. Espazio horrek bidegorri bat eta espaloi bat ditu, Olleria kaletik Faustebekoa kalearen ondoko biribilgune berriraino, eta inguru horretan nabarmen erraztuko du oinezkoen eta txirrindularien ibilbidea. "Durangarren mugikortasuna eta bizi kalitatea hobetzeko dugun konpromisoaren adibide garbia dira", azaldu du Mireia Elkoroiribe alkateak.

## GUTUNAK

### Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**  
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:

- Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

**anboto**

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 lurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrindia.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA


GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGUISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# ELORRIOKO FERIXA NAUSIKOAK 2024



**ERASO MATXISTA,  
TRANSFOBO ETA  
HOMOFOBORIK EZ**

**SARETU,  
ANTOLATU,  
ELKAR  
ZAINDU**



Elorriko Udala

**688 86 52 94**

Salatzeko eta informazioa jasotzeko telefonoa

# JAI EGITARAUA

## ABUZTUAK 30

### BARIKUA

**18:00** Dantz Point, musika elektronikoko laborategia. Ganondo parkean.

**18:00** Elektrotzaranga Txosnagunean.

**20:00** Txosnen irekiera.

**22:00** J Martina, The Clayton eta Streetwise.

## ABUZTUAK 31

### ZAPATUA

**11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur parkea.

**Txupinazioa baino lehenago**, "dinamizatzaile moreak kalerik kale": informazio eta material banaketa (txartelak, eskumuturrekoak, edalontziak, jarraibideak...) eraso matxistak prebenitzeko eta, behar izanez gero, salatzeke.

**18:00** Elorrioko buruhandiak. Plazan.

**18:30** Ondalan erraldioen konpartsa. Plazan.

**19:00** Erromeria: Gauargi taldea. Plazan.

**20:00** Txupinazioa eta pregoia: C.D. Elorrio. Plazan.

**22:15** Suzko zezena. Plazan.

**22:30** Danborrada. Plazan.

**23:00** Código Habanaren kontzertua (saltza, merengue, bachata, cumbia). Plazan.

**00:00** DJ Gaua. Txosnagunean.

## IRAILAK 1

### DOMEKA

**10:00** Abere, nekazaritza eta artisautza azoka. Ferixalekua.

**Goizean zehar** txistularien kalejira. (Antolatzailea: Elorrioko txistulariak)

**12:30** Kalejira: Dixie molto vivace taldea.

**18:00** Umeen danborrada. Plazan.

**19:30** Kontzertua: Korrontzi Plazan.

**22:15** Suzko zezena. Plazan.

**22:30** Carrefoc L'Estranya. Ibiltaria.

## IRAILAK 2

### ASTELEHENA

**12:00-14:00 / 17:00-20:00** Txu-txu tren.

**Eguerdian** "dinamizatzaile moreak kalerik kale": informazio eta material banaketa (txartelak, eskumuturrekoak, edalontziak, jarraibideak...) eraso matxistak prebenitzeko eta, behar izanez gero, salatzeke.

**13:00** Tortilla lehiaketa. Aldatsekuan.

**14:00** Kuadrillen arteko bazkaria (mahai eta aulki banaketa 09:00etatik aurrera) Aldatsekua.

**15:30** Karaokea. Aldatsekuan.

**18:00** Kuadrillen jaitsiera.

**18:30** 16 urtetik gorako kuadrillen arteko jolasak. Plazan.

**19:00** Rumbo a Tijuana mariatxiak. Urarka.

**20:00** Erromeria. Txosnagunean.

**22:15** Suzko zezena. Plazan. **Amaitzean**, erromeria Txosnagunean.

## IRAILAK 3

### MARTITZENA

**11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur

parkeak.

**13:00** Bitsaren jaia. Esteibarlandan.

**17:00** Olinpiadak (6 urtetik gorako umeentzat). Txosnagunean.

**18:00** Elorrioko buruhandiak. Plazan.

**19:00** Mute Cia kale antzerkia eta zirkua. Plazan.

## IRAILAK 4

### EGUAZTENA

**11:00-14:00 / 16:30-20:00** Zintzilik emozioen laborategia. Ganondon.

**16:30** Umeentzako jolasak. Plazan. (Antolatzailea: Txintxirri ikastola)

**17:00** 3vs3 txapelketa, ume zein nagusientzat. Kiroldegian. (Antolatzailea: Saskibaloia EKT eta Udalaiz)

**17:00** Mus txapelketa. Txosnagunean.

**18:00** Elorrioko buruhandiak. Plazan.

**18:00** Txokolatada. Plazan. (Antolatzailea: Txintxirri ikastola)

**18:00** Elorrio-lurretako Aurrera-Ondarroa gizezkoen hiru aldeko partidua (Lehentasunezko maila). Elizalden. (Antolatzailea: CD Elorrio)

**19:00** Barsanti konpainiaren EJ 75 kale antzerkia. Plazan.

## IRAILAK 5

### EGUENA

**11:00-14:00 eta 16:30-20:00** Zintzilik emozioen laborategia. Ganondon.

**17:00** Infantil eta emakume betereanoen senior kategorietako partidu ofizial bi Ermuaren aurka. (Benjamin erakustaldia). Kiroldegian.

(Antolatzailea: eskubaloia EKT eta Txantxibiri)

**18:00** C.D. Elorrio - Athletic Club - S. D Eibar triangeluarra (Euskal Liga) - emakumeak (Antolatzailea: C.D. Elorrio)

**20:00** Ad Libitum kale antzerkia. Urarkan.

**20:00** Fitoskins taldearen kontzertua. Txosnagunean.

## IRAILAK 6

### BARIKUA

**09:15** Elorrioko martxa zirkularra. Ibilbidea: plaza-San roke-San jose- autokarabana gunea- Arraiarte-San agustin-Kurutxondo-plaza-kiroldegia- Txanberri-Angio-Gazeta-Gerbilla-Aldape-San juan-Zenita-Argiñeta-Lekeriketa-Kurutxondo-plaza. (Antolatzailea: Durangaldeko Bizidun nagusien elkarte)

**11:30** Hildako jubilatuen omenezko meza. Sortzez garbiaren basilikan.

**13:00** Kopaua Elorrioko jubilatuentzat eta ibiltarientzat. Aldatsekuan.

**18:00** Elorrioko buruhandiak. Plazan.

**18:00** Areto futboleko ate irekiak (16 urtetik gorako emakumeak). Kiroldegian. (Antolatzailea: Elorrioko Buskantza FKE)

**18:00** Jubilatuentzako dantza. Aldatsekuan.

**19:00** Chicharrón Circo Flamenco 'Sin ojana'. Urarka.

**20:00** Kantarte radio pop ikuskizuna. Arriolan.

**21:00** LVIII. idi proba txapelketa. Probalekuan.

**22:15** Suzko zezena. Plazan.

**22:30** Kontzertuak plazan: Unidad Alavesa eta Nøgen (Antolatzailea: txosna batzordea)

## IRAILAK 7

### ZAPATUA

**08:00** Sukalki eguna. Aldatsekuan. (Antolatzailea: Iturizoro elkarte)

**11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur

parkeak eta Txu-txu tren.

**13:00** Bitsaren jaia. Esteibarlandan.

**16:00** Eingo plaza dantza eta euskal kantak. Aldatsekuan.

**18:00** Txokolatada. Plazan. (Laguntzailea: La Esperanza nagusien elkarte)

**18:00** Karrozen jaitsiera. Aldatsekuan.

**18:00** DJ animadorea. Plazan.

**21:00** LVIII. Idi proba txapelketa. Probalekuan.

**22:15** Suzko zezena. Plazan.

**23:00** DJ Gorka Pérez. Plazan.

**23:00** La Porteña tango. Urarkan.

**00:00** Techno gaua. Txosnagunean.

## IRAILAK 8

### DOMEKA

**11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur parkea.

**12:00** Elorrioko Kolore eta Zapareak. Kanpokalen. (Antolatzailea: Kainabera GKE)

**13:00** Herri kirolak. Plazan.

**16:00** Zesta-punta, ateak irekitzeko eguna. Hilario Azkarate frontoian.

**17:00** Goi mailako zesta-punta partidua (emakumeak). Hilario Azkarate frontoian. (Antolatzaileak: Durango Jai Alai zesta-punta eskola eta Hori hori Elorrioko pilota kluba)

**18:00** Bertso saioa: Miren Amuriza, Aitor Bizkarra, Sustrai Colina eta Uxue Alberdi. Gai jartzailea: Ainhoa Urien. Aldatsekuan.

**19:30** Aukeran dantza konpainia 'Aurri'. Plazan.

## IRAILAK 9

### ASTELEHENA

**21:00** LVIII. Idi proba txapelketa eta sari banaketa. Probalekuan.



Aurreko edizio bateko Feriako nekazarien postua.

# Dena prest Elorrioko Ferixa Nausikoetarako

Elorrio Futbol Taldeak txupinazoa jaurtita hasiko dituzte jaiak. Domekako Abere, Nekazaritza eta Artisautza Azoka inguruko baseritarren erakusleho izango da

## Jone Guenetxea ELORRIO

Elorrio Futbol Taldeko kideek txupinazoa jaurtita jai giroa nagusituko da bihar, Elorrrion. Jaiak antolatzerakoan kultur eta kirol elkarten aldetik izan duten parte-hartzea azpimarratu du Itxaso Basauri kultur zinegotziak. "Elkarlan handia dugu jai hauek antolatzeko, elkarteek hainbat ekintza antolatzen dute

eta. Ferian ere, artisauen, abeltzainen eta nekazarien parte-hartzea handia da. Denon ekarpenari eskerrak jai egitarau aberatsa sortu dugu", dio Basaurik.

Ferixa Nausikoetako jaietako egitarauan 80 ekitalditik gora aurreikusi dituzte. Kontzertu eta kale ikuskizun ugari girotuko dituzte jaiak. Bestalde, irailaren 8ko bertso saioaren

ondoren, Aukeran dantza konpainiak *Aiurri* ikuskizuna taularatu du plazan.

Umeentzako egitarauaren barruan, haur parkeak, bits jaiak, suzko zezena, buruhandiak eta txu-txu tren nabarmendu dituzte.

Gazteentzat, Zintzilik Emozioen Laborategia eskainiko dute Gando parkean, irailaren 4an

eta 5ean, goizean eta arratsaldean. Horrez gainera, Elorrioko jaietan tradizio diren Danborrada, Sukalki Eguna, kuadrillen arteko jolasak eta beste hainbat ekitaldi izango dira.

Txosnaguneari dagokionez, egitarau propioa izaten du jaien barruan. Aurtengo kartelburuak Unidad Alavesa eta Nogen taldeak izango dira.

## Jaietako nobedadeak

Aurten nobedade modura, zesta-puntari lekua egingo diote jai egitarauan. Irailaren 8rako atek irekitzeko eguna antolatu dute. Hilario Azkarate frontoian izango da. Ondoren, emakumeen goi mailako zesta-punta partidua jokatuko dute.

Beste berrikuntzetariko bat arratsalde-gauerako aurreikusi duten Dantz Point musika elektronikoko laborategia da. Musika elektronikoa esperimantatzeko aukera izango da Gando parkean.

Bestalde, jaietako ematen dien Ferixa Nausikoak 20 artisau eta 45 nekazari eta ekoizle batuko ditu. Irailaren 1eko azokan behiak, ardiak, zaldiak, astoak eta ahuntzak izango dira; baita makinaria ere. Ardi moztailen erakusketak borobilduko du ferixa goiza.

Udal ordezkariak anbulantzia zerbitzua ere nabarmendu dute. Mediku puntu bat izango da jaietan, 112 Larrialdia Zerbitzuekin koordinatuta.

Eraso matxista eta arrazisten inguruko prebentzio kanpaina martxan izango da eta dinamizatzaile more bi kaleetan zehar ibiliko dira egun bitan informazioa zabaltzen, Julene Lazkano alkateak esan duenez: "Urtero legez, protokoloa landu dugu herriko eragile feministekin".

Telefono zenbaki bat ipini dute erasoren bat gertatuz gero bertara deitzeko: 688 865 294. "Azpimarratu gura dugu erasotzaile, matxista, arrazista eta gainerakoek ez dutela lekuri herri honetan. Hemengoak badira ospa egin dezatela, eta kanpokoak badira ez daitezela etorri", esan du Lazkanok. Jaiak errespetuz ondo pasatzeko direla nabarmendu du alkateak. "Gure ingurua eta gure hizkuntza errespetatuko dituen jaiak gura ditugu. Jai euskaldunak izatea gura dugu, euskaratik eta euskaraz", gogoratu du udal buruak.

Aurtengo jaietako aurrekontua 200.000 eurokoa da, iazkoa baino 30.000 euro gehiago, udal arduradunek jaien aurkezpenean azaldu dutenez. "Aurten ere ahalegin ekonomiko handia egin dugu jai egitarau anitz eta aberatsa izateko", azaldu du Julene Lazkano alkateak.

## Maite Blanco kartelgilea

Maite Blanco elorriarrak irabazi du aurtengo jaietako kartel lehiaketa. ANBOTOk ematen duen 500 euroko saria jaso du Blancok. Guztira, 21 proposamen aurkeztu dituzte lehiaketara, inoiz baino gehiago, Elorrioko Udaleko iturrien esanetan. Horrez gainera, 752 lagunek botoa eman dutela ere azpimarratu dute; 456 lagunek webgunetik, eta 296 herritarrek Iturri kultur etxera bertaratuta.

**TELEFONO ZENBAKI BAT IPINI DUTE ERASOREN BAT GERTATUZ GERO BERTARA DEITZEDO: 688 865 294**

jone Guenetxea ELORRIO

Norberaren herrian txupinazoa botatzea gauza handia izaten da bertako elkarte zein norbana-koentzat. Aurtengo Ferixa Nausikoetan, Elorrio Futbol Taldeak piztuko du txupina eta irakurriko du pregoia. Taldeak mendeurrena ospatu du eta ibilbide oparo horren errekonozimendu legez jaiei hasiera emango die eta udaletxeko balkoitik. Gontzal Arana Eriz (Elorrio, 1984) eta David Narbaiza Petreli (Elorrio, 2002) Elorrio Futbol Taldeko kideak dira.

**Zelan hartu duzue txupinazoa botatzeko gonbidapena?**

**Gontzal Arana:** Guretzat jaietako txupinazoa jaurtitzea ohorea da. Gehienok Elorriokoak gara eta, elorriar modura, guretzat oso inportantea eta polita da taldeak 100 urte bete izana, baita aukera hau eman izana ere. Udaletxeko balkoian poz hori konpartitzen ahaleginduko gara.

**Aurtengoak jai bereziak izango dira zuentzat?**

**David Narbaiza:** Futbolak rol garrantzitsua betetzen du Elorrioren. Herriko gazte eta haur

# "Jaietako txupinazoa jaurtitzea ohorea da guretzat"

**GONTZAL ARANA ETA DAVID NARBAIZA ELORRIO FUTBOL TALDEKO KIDIAK**

Elorrio Futbol Taldeak 100. urteurrena bete du aurtten. Mendeurrenako ospakizunei txupinazoa jaurtitzea gehitu zaie. Bihar jaurtiko dute, udaletxeko balkoitik

asko futbolekoak dabilta. Horregaitik, txupinazoa botata aurtten jai bereziak izango dira guretzat.

**Zelan bizi izan duzue 100. urteurrena?**

**D.N.:** Hasieran ez nekien urteurrena zenik ere. Datorren urtean zela pentsatzen nuen, atera kontuak! Gure etxeko partiduen aurretik ekitaldi xume

batzuk antolatu ditugu Elorrioko historian zehar izan ditugun jokalariei, presidente eta zuzendaritzako taldeetako pertsonak aurkezteko. Hartara, hainbat

pertsona ezagutzeko aukera izan dugu.

**G.A.:** Partidu bereziak ere antolatu ditugu, beste urte batzuetan jokatu izan ez ditugunak. Argazkien erakusketa ere antolatu dugu, eta tabernetan ere klubeko urteetako argazkiak ikusi daitezke. Igartzen da ezohiko urtea dela. Horretarako, zuzendaritza taldeak eta beste pertsona batzuek lantaldea sortu dute eta lan polita egiten dabilta.

**"MUNDU GUZTIAK PROBATU BEHARKO LUKE KIROL BATEN TALDE LANEAN ARITZEN"**

**Zein ibilbide egin duzue Elorrio Futbol Taldearen barruan?**

**G.A.:** Kadeteetan hasi nintzen jokatzeko. 28 urtera arte lehenengo taldean jokatu nuen. Hirugarren Mailatik Ohorezko Mailara pasatzea lortu genuen. Maila horretan urtebete jokatu eta utzi egin nuen. Hurrengo

**ELORRIKO IK ASTOLA**

hitzEGIN, hitzEKIN;  
egin eta ekin atzo, gaur eta bihar  
**TXINTXIRRIN**

San Pio 3 Dorria  
Tel.: 946 582 268  
elorriko@kastola.eus

**Instalaciones Altuna S.L.**

BEROKUNTZA-INSTALAZIOAK - GASA, GASOLIOA ETA EGURRA  
ITURGINTZA - EGUZKI PLAKAK - GEOTERMIA INSTALAZIOAK  
INPERMEABILIZAZIOAK - GAS PROPANOKO INSTALAZIOAK

San Juan, 4 - Tel.: 946 820 062  
Mug.: 657 796 590  
Elorrio

ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

**UNAI GARAY**

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es

**Elect.FDEZ**  
INSTALAZIOAK ETA SISTEMAK

Telekomunikazioa - Elektrizitatea -  
Electronika - Mantenua

Ibarra kalea, 5 behe - Elorrio  
Tel.: 946 582 943 / 685 750 401

**Tanger JATETXEA**

Ibaikua, 8. ELORRIO  
Tel.: 946 820 052

**3E ETXEANDIA**  
Administración de Fincas

Nazaret Etxeandia Berrio  
Kolegiatu zk. 37.046

946 202 673  
etxeandia\_admon@yahoo.es  
Erreka kale, 17 behe - 2  
ELORRIO (Birkai)



urtean neska entrenatzen hasi nintzen, eta gaur arte. Hile batzuetako geldialdi bat izan nuen, baina gero bueltatu egin nintzen eta gaur egun Euskal Ligako neska taldea entrenatzen nabil.

**D.N.:** Sei urte hasi nintzen Elorrion jokatzeko, eta hortik aurrera hiru kategoriatara igotzea bizi izan ditut. 17-18 urte lehenengo taldeagaz jokatzeko aukera izan nuen.

**Lehenengo taldean jokatzeko zer suposatzen duen zuretzat?**

**D.N.:** Neure ametsa bete nuen. Lau urte daramatzat taldean, eta aurten kapitainetarikoa naiz.

**Zuen bion bizitzetan, Elorriko Futbol Taldeak leku handi bat betetzen du. Zer eman dizue klubak?**

**G.A.:** Nik uste dut mundu guztiak probatu beharko lukeela kirol batean talde lanean aritzen. David orain jokatzeko dabil, eta nik ere urte asko egin nuen jokalaria. Futbola uzten duzunean ikusten duzu zer eman dizun. Zenbat lagun eman dizun, esate baterako. Aldageletako arau batzuk errespetatu behar dira, taldean lan egin behar da, eguneroko jendeagaz elkarbizitza lan-

tzeko aukera ematen du... Niretzat oso aberasgarria da. Horregaitik, jendea edozein talde kirol egitera gonbidatuko nuke, balio asko ikasten delako.

**D.N.:** Norberaren burua zein taldekideena garatzeko aukera eman dit. Beste familia txiki bat dela esango nuke. Ia eguneroko egoten naiz eurekin. Denok elorriarrak izanda, aukera ematen digu kalean ere elkarrekin egoteko eta beste kuadrilla bat edukitzeko.

**Momentu honetan, Elorriko Futbol Taldeak sasoi onean dago?**

**G.A.:** Orokorrean oso ondo dagoela esango nuke. Egitura sendoa du oinarrian, eta ume asko dago parte hartzen, geroago eta gehiago. Mundu guztia zelaian sartzea arazo izaten da leku aldetik. Txiki geratzen dabil. Beraz, harrobia sendoa dago.

**G.A.:** Bai, futbolak asko tiratzen du. Neska txikitatik hasi dira jokatzeko, eta han ibiltzen garen zelaia beterrik ikusten dugu.

**D.N.:** Loretzeko bidean dagoela uste dut. Geroago eta ume gehiago ikusten dugu, neska zein mutil, eta ilusio handia duen kluba da.



Gontzal Arana eta David Narbaiza Elorriko udaletxeko balkoian Maite Blancok diseinatutako jaietako kartelagaz.

**SOLOZABAL**  
autoeskolak

- TEORIKOA ATERTZETIKO IKASTARO TRINKOAK: Alde berria berritu 5 egunetan, 100% genduzen du.
- CAP ikastarok profesionalentzat
- Teoriko orokorra euskaraz ONLINE
- Gida balmen guztiak

HEMEN GAUDE:  
Urrika kalea, 20 • Tel.: 946 583 441  
ELORRIO

**eka 20**  
arkitektura

**Silvia Urrutxi**  
**Arkarazo**

Errekakale 20, 2. A - Elorrio  
Tel.: 946 231 847  
699 356 607

**Argiñeta**

HIRIGINTZA ETA  
INMOBILIARIA BULEGOA

Zure konfiantzazko  
inmobiliaria

*jai zorientsuak izan!*

Urrika: 1 - 48230 Elorrio  
Tel.: 946 820 041  
Faxa: 946 231 830  
argineta@euskalnet.net  
www.argineta.net

**HOTEL ELORRIO**  
JAIETXEA  
RESTAURANTE

San Agustín auzoa  
48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel. 94 623 15 55  
info@hotelerlorrio.com  
www.hotelerlorrio.com

**SOLDAKETAK**  
**ELORRIO S.L.**

Egitura metalikoak • Enpresen mantenua •  
Altzairu erdolgaitza • Forja artistikoa •  
Soldaketa bereziak

Berriz Etor. 5, 14PK - 48230 ELORRIO    Tel.: 671 650 143  
soldaketakelorrio@yahoo.es    656 770 339

**ELORRIXON BIZI,  
ELORRIXON EROSI.  
DENOK IRABAZI!!!**

*Ondo pasa jaietan!*

**em9n**  
bertan gaude

ELORRIKO MERKATARIEN ELKARTEA



Maite Blanco. ELORRIKO UDALA

# "Norbere kartela norbere herriko jaiak iragartzen ikustea gauza ederra da"

Maite Blanco Urrejolaren kartelak iragarriko ditu aurtengo Ferixa Nausikoak. Elorrikoak diren hainbat ikur jaso ditu diseinuan. Kuadrillagaz ospatuko ditu jaiak

**Ekaitz Herrera** KARTEL IRABAZLEA  
Maite Blanco Urrejolak "sorpresa handia" hartu zuen Iturri Kultur Etxetik deitu ziotenean. Ez zuen espero berak irabaztea sorterrri duen herriko jaiak iragartzen dituen kartel lehiaketa. Pozik dago sariagaz, eta gogotsu Ferixa Nausikoak ailegatzeko. Kuadrillakoekin kalera irtenda gozatuko du gehien. **Zelan jaso zenuen kartel lehiaketa irabazi izanaren albistea?** Sorpresa handia hartu nuen. Ez nuen inondik inora espero. Iturri Kultur Etxetik telefonoz

deitu zidaten, eta pentsatu nuen beste arrazoiren bategaitik deitu zidatela, liburutegitik edo. Eta hara! Ilusioa egin zidan. Norbere kartela norbere herrian ipinita ikustea ederra da. **Izan ere, elorriar baten kartelak iragarriko ditu aurtengo Ferixa Nausikoak.**

Ohore handia da niretzat. Lehiaketara aurkeztu nintzenean ez nuen ezelako presiorik sentitu. Gustura eman nuen izena, bertan parte hartzeko asmo hutsagaz. Bestalde, iruditzen zait beti dela errazagoa zure herriko jai

buruzko kontuak islatzea kartelean. Jaiak bizi izan dituzenez, herria ezagutzen duzunez, badakizu gauzan nondik nora doazen. Ingurukoek oso kartel polita eta alai dela esan didate. **Elorriko ikur ugari batu duzu kartelean.**

**"KARTEL LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUDAN HIRUGARREN ALDIA DA"**

2024ko Elkartasun-Plana

# ELKARTASUNA!

- ✓ Zuk, proposatu.
- ✓ Guk entzun egingo dizugu.
- ✓ Eta, aukeratu, elkarrekin.



Bezeroa bazara, aukeratu Kausak:



GKE bazara, aurkeztu zure proiektua:





Inklusibitateaz gainera, herriko ikurrik sinbolikoenak islatzen ahalegindu naiz. Kartela ikusita, jendeak Elorrio ikustea gura nuen. Errebonbiloa, Argiñetako hilarriak, udaletxea, eliza, Don Tello kaleko arkua eta plazako iturria daude, besteak beste.

**Sarri aurkezten zara halako lehiaketetara?**

Elorrioko kartel lehiaketan parte hartzen dudan hirugarren aldia da. Aurreko edizio bietan, beste pertsona batez aurkeztu naiz. Berak ideiak garatu, eta diseinua neuk egiten nuen. Aurtetik aurrerantzat aurkeztu naiz lehiaketara. Gainerako herrietan egiten diren txapelketetara ez naiz inoiz aurkeztu.

**Elorriar modura zelan ospatzen dituzu herriko jaiak?**

Jaiak kuadrillagaz batzeko aukera ederra dira. Kiderik gehienok batzen gara eta horrek ilusioa egiten dit. Bigarren asteburua beti izaten dut gorritz markatuta. Karrozen eguna asko gustatzen zait. Gero, domekan egoten den Mundu zabaleko janariaren eguna gustatzen zait (*Elorrioko kolore eta zapoak* izeneko egitasmoa).

# Kultura bezainbeste zapo, kalean dastagai

Mundu zabaletik Elorriora bizitzera etorritako bizilagunek euren jatorri herrialdeetako mokaduak eta edariak eskainiko dituzte irailaren 8an. Uzbekistango, Japoniako, Senegalgo edo Nikaraguako mokaduak egongo dira dastagai, besteak beste

**Ekaitz Herrera ANIZTASUNA**

Jaietako bigarren domekan, Ferixa Nausikoetako egitarauan 2016tik hutsik egiten ez duen hitzordu bat egongo da: Kainabera elkarteak urtero antolatzen duen *Elorrioko kolore eta zapoak* egitasmoa. Mundu zabaletik Elorriora bizitzera etorritako herritarrek euren jatorri herrialdeko mokaduak eta edariak eskainiko dituzte Kanpokalen, 12:00etatik aurrera. Inaki Agiriano Kainabera elkarteak kideetarikoa bat da. Esan duenez, horrelako ekitaldiak oso baliagarriak dira balio zehatz batzuk lantzeko: "Batetik, gure herrira etorritakoei lekua eta ikusgai-



Mundu zabaleko mokaduak izako Ferixa Nausikoetan. KAINABERA ELKARTEA

tasuna ematen zaizkie. Bestetik, mokaduak eta edariak dastatzera datozenek aniztasuna eta gure artean herritar desberdin mordo dagoela ikusiko dute. Normalean, elorriarrek primeran erantzuten diote hitzorduari".

Bolivia, Kolonbia, Nikaragua, Honduras, Mali, Senegal, Uzbekistan, Venezuela eta Japonia. Horiexek dira udalerrira bizitzera etorritakoen jatorri herrialdeetarikoa batzuk, eta horien guztien eta gehiagoren herrialdeetako mokaduak egongo dira dastagai. Pintxoak euro biko eskainiko dituzte. Edariak, euro eta erdian. Gainera, Agiriano azaldu duenez, baturiko dirua kausa solidario bitarako erabiliko dute. Zapoak proiektura batetik, eta Atxondo Herrera Herrira bestetik.

Zapoak proiektuak otordu duinak ematen dizkie Greziako Kios uhartera heltzen diren errefuxiatuei. Gaur egun 2.000 otordu inguru banatzen dituzte egunero. Atxondoko Herrera Herriak aterpea eskaintzen die pertsona migratzaileei, Axpen, egoera erregularizatzea lortzen duten arte.

**Mallabia**  
 Marveta Torre, 25. bloke, beheko  
 48200 DURLANGO - Bizkaia  
 Tel. 94 620 19 76 / Fax. 94 620 23 48  
 www.autocaresmallabia.com  
 info@autocaresmallabia.com  
 MACHORITASUN URRIKO PERTSIDERTZAKO  
 BILGARAI EGOKITUA

"artearen soinean"  
 Arte Grafiko  
**AGITZ**  
 Sista Sospa  
**AGURTZAKE**  
 656756522

**ARKITEKSAN**  
 ARKITEKTURA BERRUGAITZAILEAK  
 WWW.ARKITEKSAN.COM  
 632 745 419  
 INFO@ARKITEKSAN.COM

**AROTZERIA OROKORREAN**  
  
**Aratz Salazar Bilbao**  
 Telf. 647 21 07 88 • arotxin@gmail.com  
 ELORRIO 48230 Bizkaia



**Urkilan**  
 Urkizuaran, 39  
 48230 ELORRIO / Bizkaia  
 Tel.: 946 820 237 / 617 636 889  
 Fax: 946 583 411  
 urkilan@urkilan.net

**MAPFRE**  
  
 VANESSA BERAZA  
 Aseguruak eta inbertsioak  
 MiFID II  
 946 582 448  
 679 182 536  
 Kanpokale, 10  
 vruizca@mapfre.com

**Calderería EZAGUN Galdaragintza**  
  
 Forjaketak artistikoak  
 Enpresen mantentze lanak  
 Lanak herdoilgaitzean  
 Erremontatzaileko lanak  
 Odoar Herrikoabaltzola Pab 10  
 Elexio  
 Tel: 946 584 547  
 ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net



J. Martina. MARIA MURIEDAS

# Denetik eta denentzat oholtza gainean

Askotariko doinuak jorratzen dituzten taldeak arituko dira Elorriko Ferixa Nausikoetan gaurtik aurrera; J. Martina, Nogen, Unidad Alavesa eta Streetwise taldeek, besteak beste, emango dituzte kontzertuak txosnagunean, plazan eta gaztetxean

## A. M. ELORRIO

Musikazaleek badute non aukeratu Elorriko Ferixa Nausikoetan, izan ere, deneriko doinuak egongo dira gozagai egunotan. Gaurkoan, adibidez, aniztasun horren adibide, J Martina, The Clayton eta Streetwise taldeek emango dituzte kontzertuak. Lehenengoak udaberriaren kalderatu zuten *Negu gorria* diskoa aurkezten dabilta. The Clayton taldea Debagoienatik dator, Aramaiotik; rock and roll doinu klasikoetan mugitzen dira; *Over the red light* aurkeztuko dute. Streetwise taldea nafarra da eta Oi! doinuak jorratzen ditu, batez ere. Bihar, zapatua, doinu dantzagarriagoak entzungo dira, Elorriko gaztetxean. Gozzue eta Kaparrak taldeek egingo dituzte emanaldiak. Gozzue otxandiarrak dira, eta Kaparrak aretxabaletarrak. Gizpuzkoarrek runba egiten dute eta zeresana ematen dabilta, izan ere, kalderatu dituzten bideoklipek mila-ika ikustaldi izan dituzte sare sozialetan. Astelehenean ere dantza doinuak izango dira nagusi, Mugi Panderoa erromeria taldeagaz.

Bigarren asteburuari ekiteko, eguenean, irailak 5, Fitoskins talde elorriarrak kontzertua emango du txosnagunean. Jarraian, Nakar talde gipuzkoarrek gaztetxean joko du. Elorriko jaietan hiru gunetan izaten dira kontzertuak: gaztetxean, txosnagunean eta plazan. Unidad Alavesa eta Nogen taldeak plazan arituko dira; Unidad Alavesa *Motoki, zakurreki, egurreki...* diskoaren aurkezpen bira betean murgilduta dabil; bestalde, Nogen talde donostiarra kontzertu jendetsuak ematen dabil azken asteetan; besteak beste, Gasteizko jaietan eta Donostiako eta Bilboko Aste nagusietan izan dituzte emanaldiak. Jaiak borobiltzeko, Zilibito Records eta BSRT Kolektiv taldeek kontzertua joko dute gaztetxean.

Kontzertuak ez ezik, musika jartzaileen emanaldiak ere egongo dira dantzatzeko eta parrandan jarraitzeko. Dozena erdi bat lagun egongo dira bariku eta zapatu bietan guneak girotzen; besteak beste, Itzaletan Sua, DJ Miniño, DJ jaleo marika, DJ Sierritx eta etxeko DJ-ak diren Suizidio Kolektivo.

**BETSAIDE**  
Zure burdin galdategi liderra

[www.betsaide.com](http://www.betsaide.com)  
Betsaide, 1 Elorrio  
Tel.: 946 584 560  
[info@betsaide.com](mailto:info@betsaide.com)

Elorrio bultzatzen!  
**Ondo pasa jaietan!**

ESCAYOLAS  
**POSADA  
"TXIBO"**

Klaudio Gallastegi, 4 - Tel.: 639 40 57 44  
[fe28265@telefonica.net](mailto:fe28265@telefonica.net)

**ARKITEKTURA** **TEKNIKOA**

**U3 Arkitektura Teknikoa**  
Ibaizabal kalea, 1  
48230 Elorrio  
Tel.: 672 256 352

Eraikuntza-obra  
Proiektuen kudeaketa osoa  
Obra berria, birgalkuntza,  
zaharberritze lanak eta  
legalizazioak

[info@u-3.es](mailto:info@u-3.es)

**santillán**  
instalaciones™

Gas naturaleko instalazioen, klimatizazio-sistemen, berokuntza-sistemen, hozte-sistemen, aire konprimatuaren eta abarren ingeniariaritzaren eta muntaiaren. Aire aldaketa itzela!

Betsaide ind. II pab B5/B6 - 103 - 48230 Elorrio - Bizkaia  
Tel.: 946 238 000 - Fax: 946 238 550 - [info@santillan.es](mailto:info@santillan.es) - [www.santillan.es](http://www.santillan.es)



Artxiboko irudia.

# Sukalki Egunak aurten ere ez du hutsik egingo

Irailaren 7an, zapatua, Sukalki Egunaren XXVII. edizioa izango da; ehunka lagun batuko da Aldatsekuan saria irabazi eta giroaz gozatzeko asmoagaz. Irabazleek 150 euroko saria, garaikurra eta txapela eramango dituzte; partaideei garaikurrak banatuko dizkiete

**A. M. ELORRIO**

Elorrioko Ferixa Nausikoetako ekitaldirik garrantzitsuenetarikoa bat bigarren asteburuan egiten den Sukalki Eguna da. Aurtengoa irailaren 7an izango da, zapatuagaz. Askorentzat jaietako egunik onena ere bada, batez ere su artean ibiltzea gustatzen zaientzat. Horrela, behi okelagaz (hegala, zankarroia eta lepoaldea baino ez dira onartuko), patatagaz, saltsagaz (perretxikorik ezingo da erabaili, soilik tipula, porrua, piperra, berakatza, tomatea, ilarra eta azenarioa), ardoagaz eta likoreekin, kazolarik onena nork prestatu arituko dira goizean. Parte hartzaileen artean garaikurrak banatuko dituzte eta hiru kazolarik onenak sarituko dituzte. Irabazleak 150 euro eta txapela jasoko ditu, bigarrenak 120 euro, eta hirugarrenak 90 euro. Iaz Trebeak kuadrilla izan zen irabazlea. Antolatzaileen esanetan, sukaldaritzako profesionalek osatuko dute epaimahaia, betiko moduan.

Ohikoa den moduan, aurretik ezingo da erreserbarik egin sukalkian parte hartzeko; beraz,

parte hartzaileek 08:00etatik 10:00etara bitartean eman behar dute izena. Antolatzaileek gogoratu dute kazola bakarra aurkeztu daitekeela izen emate bakoitzeko. Horrez gainera, parte hartzaileei azpimarratu gura diete sukalkia "haragi gisatuko kazolen lehiaketa" dela, eta, beraz, lehiatzeko asmorik ez dutenek beste errezeta batzuk egiteak "lehiaketa desitxuratu" egiten dutela. Kazolak 13:30erako aurkeztu beharko dira.

**Jaitsiera**

Sukalkiaren ondoren, kuadrillek karrozen jaitsiera egingo dute Aldatsekuatik herriko plazara, eta festak erdiguneko kaleetan zehar jarraituko du. Jaietako jaitsiera bakarria izan ez arren —irailaren 2an ere egiten da, kuadrillen egunean—, hau bereziagoa izaten da, elorriarrek mozorrotuta eta karroza artean egiten dutelako.

Oraindino indarra dutenentzat, domekan, irailak 8, egongo da zer egin. Besteak beste, Kanpokalen Elorriko Kolore eta Zaporeak azoka egongo da, Kainabera GKEk antolatuta.

**AZKARRETA**  
- EXCAVACIONES -

T. 946 582 838 - info@azkarreta.com - Ibaikua 2, behea Elorrio  
www.azkarreta.com

**CUMENOR**  
ERAIKUNTZA-ENPRESA

- Mota guztietako obrak (Igeltserotza, egiturak eta proiektuak)
- Estalki eta fatxadaren itxierak.
- Estalkien birgaikuntza eta mantentze-lanak.
- Amiantoa kentzeko lanak.

Enpresa, partikular eta jabeen erkidegoentzat zuzenduta

ESKATU INFORMAZIOA ETA  
AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

Ibaizabal k/ 1-48260 Elorrio Bizkaia  
info@cumenor.com - www.cumenor.com Tel.: 946 215 677

**BERRIAIR**  
AIRE COMPRIMIDO

HALIEN SAMENTA, KONPONKETA  
ETA MANTENTZEA:

- KONPRESOREAK
- LEHORGAILUAK
- INSTALAZIO PNEUMATIKOAK
- AIREAREN TRATAMENDUA
- HOTZ INDUSTRIALA

SERBITZU OFIZIALA:  
**BOGE**

48230 Elorrio (Bizkaia)  
Tel.: 946 820 996  
berrirair@berrirair.com

**eroan**  
DURANGALDEKO EDUKIONTZI ZERBITZUA

94 682 03 90

contenedores **eroan** s.l.

Lekeriketa Auzoa, s/n - Apartado 88  
48230 - Tel.: 946 820 390  
eroan@eroan.es

Elizburu, 46-48  
Tel.: 94 682 10 79  
ELORRIO (Bizkaia)


**ALBAÑILERIA**  
**KURUTZONDO** s.l.

Certified First  
**AUTOGAIN**  
TALLERES

TRAPA eta PINTURA  
PNEUMATIKOAK

San Agustin indus. - 57. 6. nabera  
ELORRIO (Bizkaia)  
Tel.: 946 056 732 /  
Mug.: 679 174 367  
autogain@hotmail.es

# IZURTZAKO JAIK 2024



# JAI EGITARRAUA

## ABUZTUAK 30

### BARIKUA

19:00 Triki-poteoa.  
Gasolindegian hasita.

20:00 Txupinazoa.

## ABUZTUAK 31

### ZAPATUA

12:30 Marmitako txapelketa.

14:30 Platerak aurkeztea.

15:00 Herri bazkaria.

16:30 - 18:00 Bingoa.

18:00 Xaibor diskofesta.

## IRAILAK 1

### DOMEKA (SANTA AGEDA EGUNA)

10:00 Kalejira Jaizalegaz.

12:00 Mendigain Dantza Taldea.

14:30 Herri bazkaria.

16:30 Tor magoa.

18:30 Lotxo taldea.

## IRAILAK 6

### BARIKUA

17:30 Gertufest Santo Tomasen:

18:00 Antzerki saio laburrak:  
Colectivo Lambearte: 'Lambe-lambe' / Alfonso Díez: 'El mago Winston Coppeland' / Zakapüs: 'The flea zirkus'.

20:00 Boluda Kabareta zirkua:  
dance, clown eta umorea.

21:00 'Pyrocircus ladies' ikuskizuna. Kontzertuak: Old time spooks, Sencillos pero elegantes, Ácido folklorico eta Jony txintxes y Billy ladilla.

#### Arratsaldean

- Artisautza azoka: Birak, Juli, Zua, Art-Izar, Gorakat, Jandameida, Xaboi, Amalur, Itsasegurra, Zunart & Jonedelamaza.

- Encajeras & Graffiti / Eko Karrusela: 'Al Abordaje' / Arku tiroa.

- Taberna eta janaria.

## IRAILAK 7

### ZAPATUA (SANTO TOMAS EGUNA)

10:00 Kalejira Jaizalegaz.



#### Izurtza Artisautza azoka

Gertufest jaialdiaren barruan artisautza azoka egingo dute. Askotariko hamar postu egongo dira. Santo Tomas parkean, irailaren 6an arratsaldean, eta irailaren 7an goizean.

11:00 Familientzako Gertufest Santo Tomasen:

11:00 Antzerki saio laburrak:  
Alfonso Díez: 'El mago Winston Coppeland' / Zakapüs: 'The flea zirkus'.

11:30 Piknik lehiaketa.

12:00 Mendigain dantza taldea.

12:30 Kontzertu akustikoa:  
Fleur De Malheur.

13:30 Txotxongilo antzerkia:  
Cia. Picuentos: 'Hariak Zirkus'

#### Goizean

- Artisautza azoka: Birak, Juli, Zua, Art-Izar, Gorakat, Jandameida, Xaboi, Amalur, Itsasegurra, Zunart & Jonedelamaza.

- Eko Karrusela: 'Al Abordaje'.  
Txiki-txoko.

- Taberna eta janaria.

19:00 Tortilla txapelketa

Frontoian.

20:30 Tortillak aurkeztea.

21:30 Herri afaria.

22:30 Luhartz.

## IRAILAK 8

### DOMEKA

10:00 Kalejira Jaizalegaz.

11:00 Hour parkea  
Plazan.

13:30 Igel txapelketa  
Plazan.

14:30 Jubilatuen bazkaria.

17:30 Mus txapelketa.  
Argintxun.

17:30 Partxis txapelketa  
Plazan.



#### Izurtza 'Pyrocircus ladies' ikuskizuna

Gertufest jaialdiaren barruan suzko elementuekin osatutako 'Pyrocircus ladies' ikuskizuna egingo dute. Santo Tomas parkean, irailaren 6an, 21:00etan.



BILKETA ZERBITZUA  
INSTALAZIOEN ERAISTE LANAK  
TROKELAN SUNTSITZE LANAK

Elizalde azua, 47 - 48213 Izurtza  
Tel.: 946 818 979 / 639 438 197

info@recytro.net - www.recytro.net



## GALDAKETA ETA SIDERURGIARAKO PRODUKTUAK

Foseco Española, S.A.  
Elizalde azua, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)  
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73  
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)

VESUVIUS

# Gertufest jaialdia egun bira luzatu dute aurten

Izurtzako jaien barruan Santo Tomas parkean egiten duten Gertufest jaiak egun bi izango ditu aurten, bat barik: irailaren 6a eta 7a. Barikuan, helduei begirako ekintzak izango dira nagusi. Zapatua umeei eta familiei bideratuta egongo da, batez ere

## Joseba Derteano IZURTZA

Gaur hasi eta irailaren 8ra bitartean jaiak ospatuko dituzte Izurtzan. Askotariko ekintzen barruan, bada bat apurka izena hartzen dabilena: Gertufest. Jaialdiak artea, kultura eta festa uztartzen ditu eta Santo Tomas parkean egiten da. Aurtengoa hirugarren aldia izango da eta nobedade handi batez dator: egun batean barik egun bitan egingo dute, irailaren 6ko barikuan eta irailaren 7ko zapatuan. Irailaren 6an arratsaldean egingo dute, eta nagusiei zuzenduta dago, batez ere. Irailaren 7an, goizetik eguerdira egongo dira ekintzak, eta gehienbat umeei



Bakarriketa saio bat, iazko Gertufest jaialdian. ANBOTO

eta familiei zuzendurikoak izango dira.

## Antzerki saio laburrak

Gertufest Batzordearen, Izurtzako Udalaren, Korrala Sormen Gunearen eta boluntarioen artean antolaturiko jaialdiak nobedade gehiago ere badu. Esaterako, lehenengoz, antzerki saio laburrak antolatu dituzte, bost-hamar minutukoak. Santo Tomasen sortzen den giroari ondo doakion formatua dela uste du Cecilia Paganini ekimeneko antolatzaileetarikoa batek. Formatu horren barruan, bilbotar batzuen *Lambe-lambe* txotxongilo ikuskizuna, aleman bat gidari duen *The flea zirkus* zirku ikuskizuna, eta Iurretan bizi den Alfonso Diezen magia saioa izango dira.

## Zaldiko-maldiko ekologikoa

Egun bietan zaldiko-maldiko bat egongo da parkean, umeen gozagarri. Funtzionamendu berezia duen atrakzioa da, pertsona batek bizikleta batean eragindako pedalkadak dira-eta zaldiko-maldikoa bueltaka ipintzeko 'motorra'. Zaragozako gazte batzuk dira ingurumene-

rako jasagarria den atrakzioaren sortzaileak. Zaldiko-maldikoak barku pirata baten itxura du, eta, ildo horretatik, *Al abordaje* du izena euren ekimenak.

## Piknik lehiaketa

Gertufesteko beste nobedade bat irailaren 7ko piknik lehiaketa da. Asturiaseko herri batean horrelako lehiaketa bat egin zuten eta handik hartu dute ideia. Belardian mahai-zapia zabaldu eta nor bere gustuko landa-bazkari bat atontzean datza lehiaketa. Irabazleak askotariko produktuekin osaturiko otzara bat irabaziko du.

## Zirku-karpa parkean

Gertufestera doanak ezohiko osagai bat ere ikusiko du aurten: zirku karpa. Ikuskizun bi hartuko ditu: zirku, dantza eta clowna uztartzen dituen Boluda Kabareta, eta Hariak Zirkus izeneko txotxongilo ikuskizuna.

Jaialdiko beste osagai bat musika da. Egun bien artean, bost musika talderen kontzertuak izango dira.

**HERRIKO TABERNA**

Tel.: 946 808 908  
Elizalde auzoa, 20  
IZURTZA

URDIAZPIKOA  
SALAMANCAKO TXORIZOA  
SOLOMO IBERIKOA  
SALTATXOIA  
GAZTA  
ERRAZIOAK

**BASERRIKO OGIA**

**ANTONIO TXIBER**  
BASERRIKO OGIA

Berrizetxe baserria  
Elizalde, 32 - Izurtza  
Tel: 94 681 78 21

**A Azkonizaga**

**Edari banaketa**  
GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK  
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58  
azkonizaga@azkonizaga.com

**GARATE**

Mañondo  
Baserria, 10  
Tel.: 946 815 600  
48213 Izurtza

**Pio Pio, eramateko janaria**  
Arripuko tortilla aukera ezberdinak  
Kotxeak eta maskotak garbitzeko aukera  
Baserriko ogia (Parama, Otxandioko baserri ogia)

📍 BI-623, 48213 Izurtza  
📍 BI-623, 48210 Otxandio





Milena Smit eta Hovik Keuchkerian. NETFLIX

## 'The Platform'-en bigarrenak badu data

**ZINEMA** Galder Gaztelu-Urrutia zuzendari abadiñarraren 'The Platform' pelikula arrakastatsuen jarraipenak badu estreinurako data: urriak 4, barikua; Netflix plataformak estreinatuko du film berria, arrakasta errepikatzeko asmoagaz

**A. M. ABADIÑO**

Ia hiru urteko itxaronaldiaren ondoren, Galder Gaztelu-Urrutiaren *The Platform* film arrakastatsuen bigarren zatia heltzear da. Hain zuzen ere, udan iragarri du Netflix streaming plataformak: urriaren 4an izango da. Lehenengo zatiagaz ez bezala, hasieratik estreinatuko dute, mundu osoan; hain zuzen ere, jatorrizko bertsioa ingelesez ez duen pelikularik ikusienetarikoa da abadiñarrarena: 80.000.000 ikustaldi baino gehiago batu ditu. Zinema jaialdietan proiektatu eta gero, izurriteagaz biral bilakatu zen Zorion Egileor, Ivan Massagué eta Alexandra Masangkay protagonista dituen lehenengo pelikula, eta hortik dator gaur egun sortu duen ikusmina.

Bigarren zati honetan Milena Smit (*La chica de nieve*), Hovik Keuchkeria (*La casa de papel*), Natalia Tena (*Game of thrones*) eta Oscar Jaenada (*Luis Miguel: La serie*, besteak beste) aktoreak dira protagonistak. Galder Gaztelu-Urrutia abadiñarra da zuzendaria berriro, eta Basque Films taldeko Raquel Preak eta

Carlos Juarezek ekoizpenean lagundu dute. Sekuela hau ere distopia modura proposatzen da eta kapitalismorik basatienaren adibide izan daitekeen espetze bertikalean kokatzen da, aurrekoaren antza duena. Bertan, lider misterioitsu batek bere legea ezarriko du, baina maizter berria heltzeagaz batera elikatze sistemaren aurkako borroka piztuko da.

**Sagardoyren estreinua**

Bestalde, udan, Durangaldeko aktore batek parte hartu duen beste nazioarteko estreinaldi bat egon da plataformetan. Eneko Sagardoy aktore durangarrak parte hartu duen *Those about to die* telesaila estreinatuko dute abuztuan; Sagardoy Robert Rodat zuzendariaren aginduetara egon da lan honetan, eta Anthony Hopkins eta Iwan Rheon nazioarteko aktoreekin batera lan egin du. Prime Video plataforman dago ikusgai.

**M. SMIT ETA H. KEUCHKERIAN DIRA PROTAGONISTAK**

## Elektronika jaialdia Elorrion, Dantz Pointegaz

**MUSIKA** Dantz Point musika elektronikoaren topagunea Elorrion helduko da gaur, barikua. Gisa, BRGS eta Elena Barker musika jartzaileek dantzan ipiniko dute Ganondo parkea; Irailaren 14an Durangon egingo dute bigarren geldialdia



Dantz Point Donostiako Aieten.

**A. M. ELORRIO**

Euskal herrian musika elektronikoaren alorrean erreferentziatzeko bihurtu den Dantz Point egitasmoak Elorrion egingo du hurrengo geldialdia, gaur, barikua. 18:00etan hasita, hiru saio egongo dira 00:00ak bitartean: Gisa, BRGS eta Elena Barker. Dantz Point egitasmoa 2019an jaio zen, musika elektronikoaren eta abangoardiakoaren balioa nabarmentzeko asmoagaz. Gipuzkoan eman ditu lehenengo urratsak, eta aurten Bizkaira ailegatu da. Aurreko astean Ondarroan egon zen, eta gaur Elorrio izango da elektronika zaleen topagunea. "Dantz Pointera doazenez inguru bakar honetaz gozatzeko aukera izango dute; parkea herriko birika da, Elorrioko Alde Zaharra atzean duela, eta bertako ondare historikoaren ikuspegi panoramiko eskaintzen du. Testuinguru horretan, lurraldeko artisten doinuek parkea topaleku bihurtuko dute", azaldu dute antolatzaileek ohar baten bitartez.

Guztira, hiru saiok osatuko dute gaurko programazioa. Lander Gisasola 'Gisa' bilbotarra

hasiko da; Suiziri taldeko sortzailetariko bat da bera, eta, besteak beste, Chicagoko house eta Erresuma Batuko italo, funk eta breakbeat doinuetara hurretratuko da entzuleak dantzan ipintzeko. Ondoren, Iban Borgas BRGS aretxabaletarrak hartuko du lekukoa. Hamabi urte daromatza diskoak hautatzen, biltzen eta erreproduzitzen; electro tech minimal eta acid doinuetara hurbiltzen da gipuzkoarra, batez ere, eta Gabela Parti TV eta Ezkutu Dance Club proiektuen sustatzailea ere bada. Elena Barker Bilbon bizi den madrildarrak amaituko du egitaraua. Synthetika Kolektiboko DJ egoiliarra da, eta, besteak beste, Berlinen, Seulen, Madrilen eta Donostian egon da musika ipintzen. Antolatzaileen esanetan, generoen fusioa da bere ezaggarri nagusia, eta erritmo hautsien, technoaren eta trance iturrietatik edaten du.

**18:00ETATIK 00:00ETARA, HIRU SAIO EGONGO DIRA**



Abuztuaren 23an egin zuten agur ekitaldia. GEREDIAGA ELKARTEA

# Irazabal historialariari agur hunkigarria

**KULTURA** Jon Irazabal historialaria 63 urte gaz hil zen; Gerediaga Elkarteari lotuta igaro zuen bere bizitza osoa, eta, besteak beste, Durangoko Azokako zuzendari lanetan aritu zen 30 urtez; hilaren 23an agur ekitaldia egin zioten, elizkizuna amaitu eta gero

**Jone Guenetxea** IURRETA

Abuztuaren 22an Jon Irazabal historialaria (Iurreta, 1960) hil zen. 17 urte zituela Gerediaga Elkartean hasi zen beharrean, eta ordutik elkarte eta bera ez ziren banatu. Historia teknikari lanetan ibili eta gero, 1982tik 2018ra elkarteko kudeatzailea izan zen; hiru hamarkadaz Du-

rangoko Azokako zuzendaria ere izan zen. Abuztuaren 23an, Gerediaga Elkartek agur ekitaldia egin zuen Irazabalen lana goraipatzeko.

Azken urteetan jubilatuta egon arren, ez zion Durangoko historiaren inguruan ikertzeari utzi. Gerediaga Elkartek bere lana nabarmendu du: "Ekina

eta borrokalaria izan da aldi berean. Bere ekiteari eskerrak, Durangaldeak asko daki eskualdearen historiari. Galduriko ohitura asko berreskuratzeko lan egin du, eskualdeko historian paper garrantzitsua izan duten pertsonen izena ipini die, gerra zibilean gertaturikoa azaleratu du eta Durangerriaren jatorria-



Jon Irazabal.

ren zabalkundean jardun du". Durangoko bonbardaketaren inguruan ezer gutxi ezagutzen zen sasoiaren, Irazabalek ahanzturatik atera zuen gertaera latz hura; Iurretarrak 2019an kaleratu zuen azken liburua, Martxoaren 31ri buruzkoa.

**Irazabal ANBOTOn**

Irazabalek sarri agertu zituen gertutasuna eta babesa ANBOTOrenganako. Urte askoan zutabegile aritu zen. Albiste eta gai ugari lantzerakoan, sarritan aditu legez ere kolaboratu zuen. Izan ere, memoria historikoa lantzeaz gainera, memoria pri-

bilegiatua zuen datuez oroitzeko. Datak, gertaerak, izenak, argazkiak... bere artxibo partikularrean gorde eta gogoratzen zituen. Durangaldeak asko zor dio Irazabali, baita hedabide honek ere hainbeste urtean egindako lanagaitik.

**ABUZTUAREN 23AN BERE OMENEZKO ELIZKIZUNA ETA AGUR EKITALDIA EGIN ZITUZTEN IURRETAN**



GAI LIBREAN

**ESTI ALBIZU GOIKOETXEA** BIZENTA MOGEL

## Iraila

Oporretako itzulera trantsizio-une bat da, eta bizi-erritmoan aldaketa handia izaten da. Atsedenaldira eta deskonexio-aldi baten ondoren, pertsonak berriro ekin behar diote lanari, ikasketari eta familiarri dagozkien erantzukizunei. Prozesu horrek estresa, antsietatea eta desoreka-sentsazioa areagotu ohi ditu. Testuinguru horretan, zerbitzu publikoek funtsezko zeregina dute errutinara itzultze hori moteltzeko, eta eguneroko bizitzara itzultzea errazten duten laguntza-egiturak eskaintzen dituzte.

Laneko osasun mentalari buruzko ikerketen arabera, errutinara itzultzearekin lotutako estresak oporrak bukatu eta bi aste arte iraun dezake. Aldi horretan, pertsonak zailtasunak izaten dituzte beren lan- eta familia-ingurunearen eskakizunetara egokitzeko. Hala ere, zenbait zerbitzu publikoen esku-hartzeak nabarmen arindu ditzake ondorio horiek, gaitz emozionala

murrizten duen eta normaltasunera pixkanaka itzultzea errazten duen laguntza-esparrua eskaintzen baitute.

Kultura eta aisialdiari dagokionez, bibliotekak, kirol-zentroek, antzokiek eta museoek pertsonak erlaxatzeko eta aisialdiaz gozatzeko espazioak eskaintzen dituzte, gastu ekonomiko esanguratsurik egin gabe. Bizenta Mogel Bibliotekak oso serio hartzen du betebeharrak edo funtzio hau. Horregaitik, urtero, irail hasieran ekintzen programazio zabal eta interesgarri bat eskaintzen du. Ekintza hauek publiko guztientzat pentsatuta daude, inklusioa sustatuz eta topaketarako eta komunitatea sendotzeko espazio bat sortuz: familientzako, gazte eta helduentzako irakurle klubak, hitzaldiak, kultur ekitaldiak... ekintza hauekin

biblioteka ikaskuntzarako, dibertsiorako eta bizilagunen arteko lankidetzarako erreferentzia puntu bihurtzen da. Ezagutza eta denbora komunitatean partekatzearen

balioa berraurkitzeko gonbidapen ireki bat da, eta, bide batez, errutinara itzultzea eramangarriagoa egingo da.

Zerbitzu publiko sendo eta ongi kudeatuek, bizi-kalitatea hobetzeaz gain, herritarren osasun mentalean eta ongizate orokorrean berebiziko garrantzia dute trantsizio garai honetan. Astarloa Kulturagintza osatzen dugun San Agustin Kultur guneak, Arte eta Historia Museoak eta Bi-

zenta Mogel Bibliotekak honetan guztian eragile aktiboak izan nahi dugu.

**"ESANA BEHERAINO BETE ESANA BEHERAINO BETE ESANA BEHERAINO BETE"**

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

## BARIKUA 30

**DURANGO Erakusketa**

La Cuadri del Hospi elkarteak sustaturiko Gu Be Zuek Gara ekimenaren barruan Durangaldeko Artisten Elkarteak egindako horma irudiaren erakusketa. Haurrek egindako marrazkiak ere ipini dituzte.

*Ezkurdi erakustaretoan, irailaren 1era bitartean.*

**ZORNOTZA Jaiak**

Boloak txikientzat, 17:00etan. Txupin jai eta hasiera, 18:00etan. Boloak nagusientzat, 19:00etatik 21:00etara.

Trikitilariak, 19:30etan.

Parrillada, 20:00etan.

DJa, 21:30etan.

*Epaltza auzoan.*

**ZORNOTZA Sanbartolomeak**

Umeentzako eskulan tailerra eta apar festa, 17:30etik 19:30era. Tortilla txapelketa, 20:00etan. Mus txapelketa, 20:30etan.

*Euba auzoan.*

## ZAPATUA 31

**ABADIÑO Errogatiba Eguna**

Urkiolara mendi ibilaldia, 09:00etan, Andra Mariko ermitatik. Txakurzulon 10:45ean.

Urkiolako Santutegira 11:30ean helduko dira.

Meza, 11:30ean, santutegian.

Talde Batuak dantza taldea eta Txanbolineko txistulariak, 12:45ean.

Jubilatuentzako bazkaria,

14:00etan, Urkiolan.

Ondoren, erromeria Santigaz,

16:00etan.

Gisatua, 20:00etan, Zelaietan.

Lotxo taldea, 21:00etan.

*Txanporta plazan (euria bada, probalekuan)*

**ELORRIO Bisita gidatua**

'Zenita berdea' bisita gidatua. *Turismo Bulegoan, 11:00etan.*

**DURANGO Zirkua**

'Doppiozero' (Carpa Diem Zirkua) zirku ikuskizuna.

*Aurora Abasolo parkean, 20:00etan (euria bada, Landako Gunean).*

**IURRETA Irteera**

Arrietara bizikleta irteera, lurreta Txirrindulari elkarteak antolatuta. *lurretan, 08:30ean.*

**ZORNOTZA Jaiak**

Txistulariak, 11:30etan.

Mus txapelketa, 17:00etan.

Trikitilariak, 19:30etan.

Tortilla eta kroketa txapelketa, 20:30etan.

Errifaren zozketa, 21:00etan.

Bertso tortilla, 21:15ean: Ander

Aldazabal, Alain Barañano eta

Arkaitz Estiballes

Iluntzean taldea, 22:30etan.

MAI ta AITI, 00:30etan.

*Epaltza auzoan.*

**ZORNOTZA Sanbartolomeak**

Mozorro Eguna: Euba musikatua.

Umeentzako bazkari herrikoia,

13:30etan.

Nagusientzako bazkari herrikoia,

15:00etan. Ondoren, bertso saioa

eta erromeria.

Hanburgesak eta oilaskoak,

iluntzean.

Erromeria: Xaibor, 21:30etan.

*Euba auzoan.*

## DOMEKA 1

**ATXONDO Apar festa**

Puzgarriak eta apar festa (igerilekuetako itxiera jaiak). *Igerilekuan.*

**IURRETA Irteera**

Ugaora bizikleta irteera. lurreta Txirrindulari Elkarteak antolatuta. *lurreta, 09:00etan.*

**ZORNOTZA Jaiak**

Txistulariak, 11:30etan.

Umeen jolasak, 12:30etan.

Briska, 17:00etan.

Trikitilariak, 19:30etan.

Soinutxikie, 20:30etan.

Dj Pary & Tiza, 22:00etan.

*Epaltza auzoan.*

**ZORNOTZA Sanbartolomeak**

Meza, 12:00etan. Ondoren,

Soinutxikie trikitixa eta pandero jaiak.

Txoborro magoa, 17:30etan.

Briska txapelketa hirunaka,

18:30etan. Ondoren, txokolata jaiak

agurtzeko.

*Euba auzoan.*



JOSE MANUEL ROZAS

**DURANGO Erakusketa**

'Paisaia, genero pikturikotik haratago' erakusketa dago zabalik Arte eta Historia Museoa. Bildumategiko 50 lan daude ikusgai; tartean, iaz dohaintzan jasotako Jose Manuel Rozasen *Berpizkundea*. *Irailaren 22ra bitartean, Arte eta Historia Museoa.*

## ASTELEHENA 2

**ZORNOTZA Jaiak**

Txistulariak, 11:30etan.

Luntxa, 12:00etan.

Igel txapelketa, 17:00etan.

Trikitilariak, 19:00etan.

DJa musika ipintzen, 21:00etan.

*Epaltza auzoan.*

## EGUAZTENA 4

**ZORNOTZA Jaiak**

Txistulariak, 11:30etan.

Babadea, 14:30etan.

Trikitilariak, 17:30etan.

*Epaltza auzoan.*

## BARIKUA 6

**ABADIÑO Jaiak**

Donien Atxa jasotzea, 19:00etan.

Talde Batuak dantza taldea,

19:15ean.

Paella eta tortilla lehiaketarako

izen ematea, 20:00etan.

Sound4, 20:00etan.

Parrillada, 20:30etan, HAZI

elkartearen eskutik.

*Muntsaratz auzoan.*

**DURANGO Erakusketa**

Durangaldeko Artisten Elkarteak. *Ezkurdi erakustaretoan, irailaren 15era bitartean.*

**DURANGO Jaiak**

Umeentzako ekintzak: Marrazki tailerra, ping ponga, boleibola,

klarionak (lur grafitiak) eta aurpegi marrazketa, 18:00etan.

Txupinazoa eta trikitilariak girotutako pintxo pote herrikoia, 19:00etan.

Akustic Covers, 21:00etan.

*Ibaizabal auzoan.*

**ELORRIO Musika**

'Radio Pop' (KantArte Koroa). *Arriola antzokian, 20:00etan.*

## ZAPATUA 7

**ABADIÑO Jaiak**

Mahai eta aulkien banaketa, 10:30etan.

Auto klasikoen bilera, 10:30etan.

Umeentzako entzierroa, 11:00etan.

Mozorro lehiaketarako izen ematea,

12:00etan. Mozorrotzeko gaia:

Mexiko lindo.

Puzgarriak eta tailerrak, 12:30etan.

Lehiaketarako paellen aurkezpena

eta sari banaketa, 14:00etan.

Puzgarriak eta tailerrak, 16:30etan.

Kittu taldea, 16:30etan.

Ugasio txapelketa, 18:00etan.

Apar festa, 19:00etan.

Korroxion + Llama a la pasma +

Urbagrind, 19:00etan (Xirimiri

azpian).

Lehiaketarako tortillen aurkezpena

eta sari banaketa, 20:00etan.

Suzko zezena, 21:30etan.

Mahaiak eta aulkia batzea,

22:00etan.

Fito y Los Fitipaldis bertso taldea,

22:00etan.

Espesor F-Sound, 23:30etan.

*Muntsaratz auzoan.*

**DURANGO Jaiak**

Puzgarriak eta umeentzako ekintzak: ping ponga, boleibola, klarionak (lur grafitiak) eta aurpegi marrazketa, 11:00etan.

Patinete lasterketa, 11:30etan.

Umeentzako sushi tailerra,

12:00etan.

Marmitako txapelketa, 13:00etan

(aurkezpena, 15:00etan).

KSK Selektotarrak, 15:00etan.

Mus txapelketa, 16:30etan.

Bingoa, 17:00etan.

Sugarri txaranga, 19:00etan.

Grace of Dyonisus + Kohatu + DJ

Kapi, 21:30etan.

*Ibaizabal auzoan.*

## ZINEMA

**DURANGO (AIRE ZABALEAN)**

## OTAMOTZENA PARKEAN

**Dragoi jagolea**

barikua 30: 22:00.

(Euria bada, Andra Mariko elizpean).

**DURANGO**

## ZUGAZA ZINEMA

**El cuervo**

barikua 30: 18:00, 20:30.

zapatua 31: 19:00, 21:30.

domeka 1: 17:00, 19:30.

astelehena 2: 18:00, 20:15.

martitena 3: 18:00, 20:15.

eguaztana 4: 19:00.

**Romper el círculo**

barikua 30: 20:30.

zapatua 31: 20:30.

domeka 1: 19:30.

astelehena 2: 18:00

martitena 3: 20:15

eguaztana 4: 19:00

**Odio el verano**

barikua 30: 18:00.

zapatua 31: 18:00.

domeka 1: 17:00.

astelehena 2: 18:00

martitena 3: 18:00

eguaztana 4: 19:00

**La Trampa**

barikua 30: 20:30

zapatua 31: 19:00, 21:30.

domeka 1: 19:30.

astelehena 2: 20:15

martitena 3: 20:15

eguaztana 4: 19:00

**Buffalo Kids (euskaraz)**

barikua 30: 18:00.

zapatua 31: 17:00.

astelehena 2: 18:00.

martitena 3: 18:00.

**Buffalo Kids (gaztelaniaz)**

zapatua 31: 17:00.

domeka 1: 17:00.

martitena 3: 18:00.



Ekaitz Maiz, Josu Linaza, Oier de la Fuente eta Markel de la Fuente.

## Elorriar bi izan dituen espedizioak eskalada bide berria ireki du Pakistanen

**ESKALADA** Pakistanen, eskaladan oraindino gutxi esploratutako mendilerro batean, Markel de la Fuente eta Oier de la Fuente anaia elorriarrek, Josu Linaza igorreztarrek eta Ekaitz Maiz etxauriarrak 7-B zailtasun mailako bide berri bat zabaldu dute

**Joseba Derteano** ELORRIO

Erdialdeko Asiako Karakorum mendi sistemak eskaladarako hamaika aukera eskaintzen du, bost herrialdetan banaturiko 500 kilometrotan. Ikusmena helitzen den arteko tontor amaigabeen artean, zonalde batzuk beste batzuk baino ezezagunagoak dira, eta euretariko asko oraindino esploratu barik daude eskaladaren ikuspuntutik. Lau euskaldunek horietariko bat konkistatu dute oraintsu, eta eskaladarako bide berri bat zabaldu dute. Markel de la Fuente eta Oier de la Fuente anaia elorriarrek, Josu Linaza igorreztarra eta Ekaitz Maiz etxauriarrak dira balentriaren egileak.

Laurek esperientzia dute eskaladaren munduan. Esaterako, Markel de la Fuente Yosemite eta Jay Sierra (Amerikako Estatu Batuak) inguruko pareta

ezagunetan eskalatzen aritu zen iaz, eta orduan irten zen Pakistaneko abenturaren ideia. Harezkerok, zonalde bat baino gehiago ikertu dute, eta beste batzuk baztertu, gune "arriskuetsuak" zirelako, de la Fuenteren esanetan. Baina, azkenean, aurkitu zuten bila zebiltzana, Sosbun bailararen inguruan. Zonalde hartako informazio gutxi zegoen: zenbait argazki zahar eta iaz Poloniako lagun batzuek hara egindako espedizioa.

**Inork igo bako mendia**

Abenturara joan ziren, beraz. "Ez genekien kanpamentu nagusia non ipiniko genuen ere", esan dute. Bailararen erdi inguruan kokatu zuten eta mendiak arakatzeari ekin zioten: bideragarritasuna neurtu, arriskuak baloratu... Hirugarren egunera ko erabakita zuten konkistatu

beharreko mendia. "Kakotx artean esanda, nahiko segurua zela ikusi genuen. Gainera, inork igo bako mendia zen, eta, bide berria zabalteaz batera, tontor berri bat egiteak motibatu egiten gintuen", gogoratu du de la Fuentek.

Ez zen lan erraza izan, eguraldiagaitik, besteak beste. Egunditan hormako lehenengo metroak finkatu ondoren, ondorengo hamar egunetan ezin izan ziren bueltatu, eguraldia "erdipurdikoa" zelako. Baina komeriak ez ziren hor amaitu. 400 bat metroko garaieran, de la Fuenteri hondatu egin zitzaion esku artean zuen zulagailua, zulo bat egiten zebilela. "Zulagailurik barik jarraitzea arriskutsu ikusten genuen eta jaistea erabaki genuen", argitu du. Egundian atsedean hartu, ordezko zulagailu txikiagoa hartu, eta berriro gorantz jo zuten. Bigarren ahaleginean, bidea osorik zabaltea eta tontorrera heltzea lortu zuten. Hiru egun behar izan zituzten igo eta berriro jaisteko.

'Izar gorri, mamuon betiko argi'. Izen horregaz bataiatu dute 1.140 metroko bide berria. 7-B zailtasuna du arrokkako graduan, eta M-4 pioletoko graduan.

**Esperientzia "berezia"**

Udaberrian beste bide bat zabaldu zuten Pirinioetan, Marboré inguruan. Beraz, alde horretatik Markel de la Fuentek bazuen aurretik esperientzia, baina oraingo hau "berezia" izan dela esan du: "Lehenengo aldia nuen ho-

rrelako espedizio batean eta hain pareta handia zabalitzen". Ekaitz Maiz, oster, zailduta dago antzerako abenturetan, ezaguna da horregaitik, eta bere esperientzia eta jakituria funtsezkoak izan dira. "Bera izan da liderra. Urte asko daramatza mundu osotik bide gogorak zabalitzen. European dagoen erreferenteetariko bat da", goraiatu du de la Fuentek. 29 urteko elorriarri "pena" bakarria geratu zaio Pakistaneko abenturatik: lehenengo egunetako eguraldi txarra. "Eguraldi hobeagaz eskalada gehiago egi-

### 400 METRORA ZULAGAILUA HONDATU ZITZAIEN ETA JAISTEA ERABAKI ZUTEN

teko aukera izango genuen", adierazi du. Baina, orokorrean, "oso pozik" dago bizitako guztiagaz. "Erroka handia zen. Leku arrotz batean zaude, 6.000 edo 7.000 metroko mendiz inguratuta, eta erreskatea konplikatu den zonaldean. Bildur apur batez joan nintzen. Azkenean, esperientzia berria eta positiboa izan da", baloratu du.

Eta datorren urtean, zein da asmoa? "Bizi izandakoa barneratzen nabil oraindino, baina baditugu ideia batzuk: Pakistanen bertan, Kirguistan... Irten-go da planen bat, hori seguru", esan du.



Kanpamentu nagusia mendien artean.



Markel de la Fuente, eskalaturiko horman.



Erdian Mun Brak II, igotako mendia.

# Amorebieta puntu bila, joko onagaz jarraituz

**FUTBOLA** Amorebieta futbol taldeak joan zen asteburuan hasi zuen Lehenengo RFEF mailako liga. Joko aldetik sentsazio ona utzi zuen, baina hiru puntuek ihes egiten zuten Urritxetik. Domekan denboraldiko lehenengo puntuak batzen ahaleginguduko da, Lugon

**Joseba Derteano** ZORNOTZA

Oraindino findu barik dagoen talde bat izateko, Amorebietak sentsazio ona utzi zuen ligako lehenengo jardunaldian. Kontuan hartzekoa da iaz maila galduta taldea goitik behera eraberritu dela, aulkitik bertatik hasita. Julen Guerrerok hartu du talde urdinaren gidaritzza. Horiak guztiak kontuan hartuta, Amorebietak itxura ona eman zuen joan zen asteburuan Urritxeren zaleen aurrean, baina hiru puntuek Segovia aldera ihes egin zuten. Bereziki krudela izan zen porrota, Segovianak partiduko 87. minutuan sartu zuelako garaipearen gola.

Partiduaren osteko prentsaurrekoan, Julen Guerrero entrenatzailea atsekabetuta agertu zen emaitzagaitik, baina esperantzaz joko onagaitik. "Ondo jokatu dugu eta hainbat aukera izan dugu gola sartzeko. Askotan heldu gara hegaltatik, eta azken pasea edo errematea bai-



Amorebieta eta Segoviana partiduko une bat. MARIELI OVIEDO

no ez zaigu falta izan", baloratu zuen entrenatzaile bizkaitarrak.

Ligak ez du atsedetik hartzen, eta asteburuan bigarren jardunaldiaren txanda izango da. Urdinak, joko onari eutsi eta

denboraldiko lehenengo puntua lortzeko esperantzazagaz joango dira Lugora. Talde galiziarrek ere porrotagaz ekin dio denboraldiari. 2-0 galdu zuen Cultural Leonesa taldearen zelaian.



Asteon egin dute aurkezpen ofiziala. SD HUESCA

## Iker Unzueta Bigarren Mailako Huesca taldeagaz jokatu du

**FUTBOLA** Aurrelari abadiñarrak urte birako kontratua sinatu du Hypermotion Ligan dabilen taldeagaz

**Joseba Derteano** ABADIÑO

Iker Unzueta SD Huesca taldera batu da aste honetan. Aurrelari abadiñarrak urte birako kontratua sinatu du Hypermotion Ligan (Espainiako Bigarren Maila) dabilen klubagaz.

2023ko udatik hona Portugalgo Vizela taldeko jokalaria izan da Unzueta. Klub horretan ez du asko jokatzeko aukerarik izan: zazpi partidutan parte hartu du, eta gol bat sartu. Horiak horrela, aurtengo urtarrilean, neguko merkatuan, Amorebieta klubera batu zen, utzita, eta hantxe aritu zen denboraldia

amaitu arte, protagonismo handiagaz: bost gol sartu zituen mailari eusteko borrokan sartuta zegoen klubagaz. Levante-ri sarturikoa bereziki ona izan zen.

Denboraldi berrirako Portugalera bueltatu zen —Vizela Portugalgo Bigarren Mailara jaitsi zen aurreko denboraldian— baina Huescako atea zabaldu zaionean bertara batzea erabaki du. Aragoiko klubak indartsu hasi du denboraldia. Lehenengo jardunaldi bietan irabazi egin du eta hirugarren dago sailkapenean.



## JOKALDIA

**KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA** HERRI KIROLAK

## Planifikazioa

Zenbat aldiz egin dituzue planak eta gero pentsatutakoaren kontrakoa egiten amaitu? Zenbat aldiz irudikatu duzue egun zoragarri bat eta zenbat aldiz bukatu da pentsatutakoa baino okerrago? Eta zenbat aldiz pentsatu duzue arratsalde aspergarri bat zeneukatela aurretik eta azkenean zoragarria izaten bukatu da?

Ba niri ere antzerako zerbait gertatu zait udara honetan. Maiatzetik urrira arteko asteburu ia guztiak programatuak nituen han eta hemen erakustaldi eta txapelketekin: Zarautz, Gaztelu, Ituren, Larrondo, Elgeta, Beizama, Sopuerta, Deba, Elgoibar, Bilbo, Areatza, Zamudio, Lezo, Trapagaran, Artzentales, Ziortza-Bolibar, Leioa... Horrenbestez, ez nuen tarte handirik oporretara joateko.

Baina hara non, maiatzean gerriko minekin hasi eta berehala joango ziren esperantza izan arren, inori opa ez dizkiodan minekin pasatu dut udarako ia

**"INORI OPA EZ DIZKIODAN MINEKIN PASATU DUT UDARAKO IA DENBORARIK GEHIENA"**

**"HORREGATIK, PLAZAZ PLAZA IBILI BARIK, AZKEN MOMENTUKO OPORRAK HARTZEA TOKATU ZAIT"**

denborarik gehiena. Hori dela eta, programatutako erakustaldi eta txapelketak bertan behera utzi eta, fisio, osteopata eta entrenatzailearekin gorputza bere onera itzultzeko bideari ekin diot.

Gorputza eta burua konektatuta daudela diote eta nerbio sistema lasaitzeko gomendioa jaso nuen hainbat espezialistaren eskutik: oporretara joan eta des-konektatu. Horregatik, plazaz plaza ibili beharrean, azken momentuko oporrak hartzea tokatu zait eta ez dakizue zenbat eskertu ditudan. Bukatzean dagoen udara hau, nola planifikatu nuen ikusi eta nola joan den bizi ostean, argi geratu zait gauzak zerbaitegatik pasatzen direla eta planifikaziorik onena eginda ere, edozer gerta daitekeela. Askotan buruak nahi ez arren, gauzak bertan behera utzi behar direla.

Horregatik esaten dute askotan planik onenak aurrez planifikatu gabekoak direla eta a ze nolako arrazoia duen esaldi horrek.

ESKELA



### Jon Irazabal Agirre

Durangerriko historian erreferentzia nagusia izan zara guztiontzat.

*Hutsune handia utzi diguzu.  
Beti izango zaitugu gogoan.*



## GUARDIAKO BOTIKAK

### ABUZTUAK 30

24 orduz

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango  
Melero, San Pedro 31 - Zornotza

22:00 arte

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

### ABUZTUAK 31

24 orduz

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango  
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:30-13:30

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Bazan, Uribarri 5 - Durango

De Diego, Inxaurrondo 22. - Durango

Santamaria, Errekakale 6. - Elorrio

Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza

### IRAILAK 1

24 Orduz

Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

### IRAILAK 2

Sarria, Sasikoa 17

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00 arte

Urbartarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

### IRAILAK 3

Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00 arte

Sanchez, Urbartarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

### IRAILAK 4

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00 arte

Sanchez, Urbartarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

### IRAILAK 5

Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

22:00 arte

Sanchez, Urbartarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

## ZORION AGURRAK



**GOZATU GOZOTEGIA**  
Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663 / 661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
f Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



ABADIÑO  
**Asier Etxebarria**  
Abuztuaren 31n Asier Etxebarriak urteak egiten ditu. Bizitzak zuri poztasunak ematen jarrai dezala.



ABADIÑO  
**Ametz Mendieta**  
Abuztuaren 20an, gure familiako txikitxak 4 urte egin dauz! Beti bezain alai jarraitu daizula. Besarkada erraldoia familia osoaren partez. Maite zaitugu!



**Pedro Maria Albizuri**  
Abuztuaren 28an, 69 urte. Zorionak, Pedrotxu, zure familiaren partez!



**Naroa eta Eneko**  
Zorionak, bikote. Eztei bidaian ezkontzan bezain ondo pasa izatea espero dugu. Gora ezkonberriak!

## Urte askotarako!

Hamabostean behin, jasotako zorion-agurren artean **GOZATU gozotegiko tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

### Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta *Anboto.org/zorionagurrak* helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

### Posta elektronikoa


Mezua bidali *zorionagurrak@anboto.org* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

### Ordezkaritzak

Etor zaituz Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.


## EGURALDIAREN IRAGARPENA

EUSKAL HERRIA




DURANGALDEA

Zapatua, 31



Domeka, 1



**Betikoak flexografia**

BULEGORAKO ZIGILUAK FOTOLITOAK

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA



**GAER DESINFEKZIOAK**

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

# GREMIOEN GIDA

| Zurgintza   | Zurgintza  | Iturgintza   | Iturgintza   |
|---|--|--|--|
| <p><b>leike</b> Eraberritzeak<br/>Interiorismoa<br/>Aroztegia</p> <p>NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK</p>  <p><a href="http://www.leike.eus">www.leike.eus</a><br/>Antso Estegiz, 3 Durango<br/>Tlf: 94 681 72 29</p> | <p><b>ATERPE</b> ARBOTEKIA</p> <p>EGUR ERAIKUNTZAK<br/>TEILATU ETA BARRUKO LANAK</p>  <p>Asier Abendibar<br/>635 74 84 65<br/><a href="http://www.carpinteriaaterpe.com">www.carpinteriaaterpe.com</a></p> | <p><b>Ubide</b><br/>iturgintza</p> <p>Iturgintza, gasa eta berokuntza</p> <p>946 030 506 / 625 702 208<br/>ubide@euskalnet.net<br/>48200 DURANGO 188 PK.</p> | <p><b>UNAI GARAY</b><br/>ITURGINTZA<br/>BEROGINTZA<br/>GASA</p> <p>INSTALATZAILE BAIMENDUA</p> <p>659 673 790<br/>unaigaray@yahoo.es</p> |

| Elektrizitatea   | Iturgintza   | Dekorazioa   |
|--|--|--|
|  <p><b>ELECTRICIDAD JON</b></p> <p>622 684 284<br/>electricidadjon@outlook.es</p> | <p><b>Mallabiena</b></p> <p>M.Z.O. ITURGINTZA - GASA<br/>BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.</p>  <p>Mallabiena industrigunea, 6<br/>48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862<br/>mallabiena@mallabiena.com</p> | <p><b>JAIO</b>barnizatuak</p> <p>Armairu eta era askotariko<br/>altzairuen lakadura eta<br/>guztietako zaharberritzeak<br/>egiten ditugu</p> <p>Eitua Industrialedea, 45 Garala A - BERRIZ<br/>Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421<br/>info@jaioarnizatuak.com<br/>www.jaioarnizatuak.com</p> |





LAU-HORTZA

BIXENTE AIZPURUA  
EGUREN

## Hitzak eta hitzak

Ia 100 egun igaro dira PNVe-  
k eta PSOEk gobernu berria oso-  
tu zutela eta lehendakariak eta  
bere sailburuek hurrengo pro-  
posamenak egin zituzten:

– “Ausartak izan, ez izan huts  
egiteko beldurrik”

– “Euskadiren balioak zabaldu  
behar ditugu munduan”

– “Desberdinen arteko ulerme-  
na bilatu behar da”

– “Finantza-tresnak daude eta  
erabiliko ditugu”

– “Arazo konplexuek ez dute eran-  
tzun errazik”

– “Euskadik Europako birjaiotze  
industrialaren buru izan behar  
du”

– “Mugikortasunak aukera-ber-  
dintasuna sortzen du”

– “Liderrak gara. Puntako herrial-  
deei begiratzeko unea da”

– “Hezkuntza aurrerapen soziala-  
ren sinonimoa da”

– “Inork ez dezala miraririk espe-  
ro, baina bai borroka-ekintza bat”

– “Lehen mailako arreta indar-  
tu eta prestigiatu behar da”

– “Gaztetze soziala sustatuko  
dugu”

– “Gehiago lortzen da lankide-  
tza, gure artean bizkarra eman-  
da baino”

– “Gure errealitatera egokitu-  
tako politikak aplikatu behar  
dira”

– “Balio etikoak sustatzen dituen  
memoria kritikoa”

Esaldiek doinu polita dute, bai-  
na euskaldunak izanik ea hitza  
betetzen duten eta behingoz  
talde politiko guztiek benetako  
politika egiten duten euskaldu-  
non bizimodua hobetzeko.

AKUILUA

# "Mitxelin izarra lortzea da etorkizuneko erronka"

**AITOR GARATE BERASALUZE SUKALDARIA**

Aitor Garatek (Izurtza, 1994) bistro erako jatetxea du Miami Beach-en: Edan. Eta datorren urtera begira Lur jatetxe berria zabaldu gura du bestearen ondoan

**Aitziber Basauri IZURTZA**

Bost urte dira Aitor Garate Mia-  
mira (AEB) joan zela, Izurtza  
utzita. Mikel Goikolea sukaldari  
otxandiarrazagaz batera Leku  
proiektua ipini zuen martxan.  
Urte eta erdi egin zuten elkar-  
rregaz, 2021ean bakoitzak bere  
bidea hartu zuen arte. Ondo  
kozinatzeko, maitasuna ipintzea  
ezinbestekoa dela uste du.

**Nondik datorkizu sukaldaritzagaz-  
ko zaletasuna?**

Betidanik hartu-eman zuzena  
izan dut produktuagaz. Baserrian  
hazitakoa naiz. Ogia, gazta...  
etxean baserriko produktuekin  
lan egin izan dugu beti, eta gus-  
tuko izan dut. Bada, 17 urtegar  
ostalaritza eskolan hasi nintzen.  
Sukaldaritza eta sommelier ikas-  
ketak amaituta, Tenerifeko (Ka-  
nariak) hotel batean egin nituen  
praktikak.

**Izen handiko sukaldariekin lan egi-  
teko aukera izan duzu. Baduzu  
erreferenterik?**

Azurmendi jatetxean lan egin  
dut Eneko Atxagaz, eta Tenerifeko  
Martin Berasategigaz. Gainera,  
Finlandiara joateko aukera ere  
izan dut. Geroago, AEBetara  
etorri baino lehenago, Etxebarri  
jaketxean sommelier lanak egin  
nituen. Kozinatze teknika



dagokionez, Atxa izan dut erre-  
ferente. Eta janaria puntuan noiz  
dagoen jakiteko, Bittor Arginzo-  
nizek duen ikutua ere oso garra-  
tzitsua iruditzen zait.

**Orain bost urte Miamira joatea era-  
baki zenuen. Izurtzak eta Miamik  
badute antzik?**

Ez! (barrez). Miamin ez dago  
mendirik. 50 pisuko eraikin ba-  
tera igo, eta goitik lautada bai-  
no ez da ikusten. Hona heldzean  
bizi izan nintzen eraikinean  
Izurtzako biztanleria baino bi-  
zilagun gehiago ginen.

**Ondo egokitu zara Miamira?**

Oso ondo! Bizitza oso erraza da  
hemen.

**Miami Beach-en Edan bistroa duzu  
zabalik, eta datorren urtera begira  
Lur jatetxea zabaldu gura duzue,  
alboan. Zein da zure proposamena?**

Oso eskaintza pertsonala da,  
bizitzan zehar ikusi eta ikasi  
dudana batzen duena, gustuko  
dudana. Produktua zaintzen  
ahalegintzen gara, ahalik eta  
produkturik onena lortzen. Ez  
da asko gehiagorik behar. Nire  
ikutua ematen ahalegintzen naiz.

**Etorren zara Izurtzara?**

Bai, baina iazko maiatzetik hona  
ez naiz joan. Badut gogo. Azken  
urte hau nahiko kaotikoa izan  
da, martxan genituen proiektuak  
utzi eta berriei ekin diegu eta.  
Lan eta lan ibili gara. Ama etor-  
tzen da gehiago ni bisitatzera.

**Euskal Herriko zeren falta igartzten  
duzu?**

Tabernena, jateko aukera des-  
berdinena, kaleko giroarena...

**Jateko kontuetan zeri ez diozu inoiz  
ere ezetzik esango?**


Amamaren arrain zopari.

**Etorkizunera begirako erronka?**

Lur zabaldu gura dut, euskal  
jaketxe modura, eta Mitxelin  
izar bat lortu.

**AgroPaper®**  
NEKAZARITZA  
JASANGARRI BATERAKO  
NEGUTEGIA



 Smurfit Kappa